## Sevillako Kontserbatorioaren Sortzaile.

Norberto Almandoz 1927an musika pedagogo bezala hasi ostean, esperientziak geroz eta garbiago birbaiezten zion musika irakasteko zentru ofizial bat sortzeko zegoen premia, bertan ikasleek zegozkien ezagupenak batetik eta tituluak bestetik eskura zitzaten.

Sevillako Unibertsitatean zituen harremanek ikusarazi zioten bertan, honek, bere baitan har zezakeela Kontserbatorioaren hasierako proiektua, denborarekin etxe independientea izan beharko bazuen ere. Unibertsitateko Errektore j.arekin izan zituen elkarrizketak oso positiboak izan ziren eta legezko tramiteak burutzen urte batzuk igaro ostean, Kontserbatorioa Sevillako Unibertsitatean kokatu zen.

Momentuz Sevillan Sección de Música de la Sociedad Económica Sevillana de Amigos del País eta Academia Mariani-k funtzionatzen zuten musika irakasteko zentru bezala. Musika ikaskizun desberdinetako maisu plantila zegoen aipatutako bi erakundeetan, baina gehienek ez ziren inolako titulu ofizialen jabe.

Norberto Almandozek proiektuen berri jakinarazi zienean, guztien laguntza interesatua aurkitu zuen. Horrela, maisu bezala zentru ofizial batean sartzea espero baizuten.

Sevillako musika mundu honetan, nabarmena zen Fallaren ikasle kuttuna, Ernesto Halffter (Madrid



## Fundador del Conservatorio de Sevilla.

Tras el comienzo de la andadura de Norberto Almandoz, como pedagogo musical en 1927, su experiencia fue reafirmándole en la idea de la urgente necesidad de la creación de un centro oficial de enseñanza musical, en el que los alumnos adquiriesen los conocimientos y los títulos correspondientes.

Sus contactos con la Universidad sevillana le hicieron ver que en sus instalaciones pudiera ser acogido el proyecto inicial de un Conservatorio, que con el tiempo debería adquirir independencia domiciliaria. Sus conversaciones con el Sr. Rector de la Universidad fueron muy positivas y, tras varios años de trámites legales, el Conservatorio se instaló en la Universidad de Sevilla.

En el momento funcionaban en Sevilla la Sección de música de la Sociedad Económica Sevillana de Amigos del País y la Academia Mariani, como centros de enseñanza musical. En ambas entidades había una plantilla de profesores de las distintas disciplinas musicales. Pero la mayor parte no poseían títulos oficiales.

Cuando Norberto Almandoz puso en conocimiento de ellos sus proyectos, encontró el apoyo interesado de todos. Esperaban así ingresar, como profesores, en un centro oficial.

Figura destacada en el mundo sevillano musical era el discípulo predilecto de Falla, Ernesto Halffter



Aurrean eta erdian A. Donostia, Gelasio Aranburu eta Norberto Almandoz, Pasai Antxoko Schola Cantorum-eko kideekin. Santiago de Compostela, 1932ko uztailean.

1905), konpositore eta orkestra zuzendaria. Adiskidantzazko harreman estuak izan zituen Norbertok berarekin eta elkarrekin planifikatu zuten Sevillako Kontserbatorioaren etorkizuna.

Sevillan eta Sevillatik lan egiten zuen peoi finkoa zen Norberto Almandoz. Ernesto Halffter, ospe handiko gizona eta bere kontzertuen etengabeko ibilian giza harreman anitz zituen madrildar hau zen biderapen burokratikoak mugitzeko bitartekaria, baimen fiskalak eta zegozkien subentzioak eskuratzeko hainbat eginbeharretan.

1932. urtea etengabeko tirabiretan igaro zuten Kontserbatorioa irekitzeko behar ziren baimenak lor ezinik. Aukeratutako lekuak gabezi nabariak bazituen ere, ez zen hau arazorik nagusiena. Hala ere, arazoa Madrilen eztabaidatzen zen, non irakasle tituludunak izateko beharra gogoratzen zuten. Espainiako hiriburutik hautagai titulatu ugari mugitu ziren, egiteko honetan gogortasuna eskatuz. Sevillan aldiz, meritu oneko irakasle ez titulatuek Kontserbatorioko irakasle postuak eskatzen zituzten. Eta guztien erdian, han zegoen Norberto Almandoz, aspaldiko

En primer plano en el centro P. Donostia, Gelasio Aramburu y Norberto Almandoz, rodeados por los componentes de la Schola Cantorum de Pasajes Ancho. Santiago de Compostela, julio de 1932.

(Madrid 1905-1989), compositor y director de orquesta. Con él trabó Norberto Almandoz una profunda amistad y juntos planificaron el futuro Conservatorio sevillano.

Norberto Almandoz era el peón fijo que trabajaba en Sevilla y desde Sevilla. Ernesto Halffter, madrileño de gran prestigio y múltiples relaciones sociales en el constante trajinar de sus conciertos, era el comodín para mover los trámites burocráticos en orden a conseguir las licencias oficiales y las subvenciones correspondientes.

El año de 1932 transcurrió en continuos forcejeos, para conseguir la autorización, para la apertura del Conservatorio. Aunque el domicilio escogido tenía evidentes carencias, no era éste el principal problema. La cuestión se debatía en Madrid, donde recordaban la necesidad de contar con profesores titulados. Desde la capital de España se movilizaron muchos pretendientes titulados, pidiendo rigor en esta condición. Por el contrario, en Sevilla los beneméritos profesores no titulados reclamaban su acceso a los puestos del Conservatorio. En medio de



Juan Bautista Elustizari omenaldia (ezkerretako laukian), Sevillako Katedraleko organista Norberto Almandozen aurretik (harmoniumaren aurrean eserita).

Homenaje a Juan Bautista Elustiza (en el cuadro de la izquierda), organista anterior a Norberto Almandoz en la Catedral de Sevilla. Este, sentado ante el armonio.

irakaslego trebeak bereganatutako meritu‍ak berretsi nahirik.

Hitz hauekin erantzuten zion Ramon Usandizagak 1933ko urtarrilean Norberto Almandozen eskutitz bati: "...Idazten atzeratu banaiz ere, zure lehenengo eskutitza irakurtzerakoan jabetu nintzen, eskuartean zenuten arazoaren larrialdiaz, eta jaso orduko nere lehengusuarengana jo nuen, zurearen kontzeptuak transkribituz eta arreta guztiarekin bere eragina gomendatuz, eta eskatu, Kontserbatorioa irekitzeko agindua zuengana lehenbaitlehen hel zedila eskatu ere, hala nola, orain artekoan lan horretan ari zen Irakaslegoa bere lanpostuetan ziurtatzeari dagokionean ere, zeren ezbairik gabe, esaten nion, baldintza berdinetan, hau da, tituluaren beharrezkotasuna ezabatuz gero, bistakoa da orain artean kargu horiek konpetentzi eta oniritzi osoarekin betetzen zituztenek eskubide gehiago dutela...".

Titulurik gabekoen artean Eduardo Torres (Albaida 1872-1934) aurkitzen zen, Katedraleko Kapera-Maisua eta musikagile ospetsua, eta Ernesto Halffter, bata eta bestea ere kargu garrantzitsuetarako proposatuak.

todos se hallaba Norberto Almandoz, que deseaba ratificar los méritos adquiridos por el profesorado veterano.

En enero de 1933 Ramón Usandizaga contestaba a una carta de Norberto Almandoz, con estas palabras:

"...Pero aunque haya tardado en escribirle, me hice cargo desde su primera carta de la urgencia del asunto de Uds. y así a raiz del recibo de la misma, me dirigí a mi primo, transcribiéndole los conceptos de la suya y recomendando a su influencia con todo interés, tanto que les llegara a Uds. cuanto antes la orden de apertura del Conservatorio, como lo referente a confirmación en sus puestos de los Profesores que anteriormente venían desempeñándolos, pues es indiscutible, le decía, que en igualdad de condiciones, o sea, suprimida la obligatoriedad del título, tienen evidentemente mejor derecho los que venían desempeñando los cargos desde tiempo atrás con competencia y a entera satisfacción..."

Entre los no titulados se hallaban Eduardo Torres (Albaida 1872-1934), Maestro de Capilla de la



Geografía e Historia

Beren aldeko irtenbide baten itxaropena izan arren, irakaslego ez titulatuak Cordobako Kontserbatorioan aurkeztea erabaki zuen, beharrezko tituluak eskuratu asmoz. 1930ean Norberto Almandozek egin zuen jokaldi berdina. Halabaina, desberdintasun nabari batekin. Hau, "honoris causa" eta zuzentasun osoz, errekonozimendu ofiziala merezi zuten formazio eta jakintzaren jabe zen. Gainerako lankideen artean borondate ikaragarria zen nagusi, baina ageriko teknika kaxkarra, ohorezko salbuespen bat edo beste izan ezik.

Nahi zituzten tituluak eskuratzeko izan zuten erraztasuna oso gaizki ikusia izan zen Madrilen. Joaquín Turina sebilarra, eta garai hartan Madrileko Kontserbatorioko Katedratiko zenak, orrialde gogor bat idatzi zuen "El Debate"n, non "Kontserbatorio Elektrikoa" deitzen zion Córdobakoari, bertan prestakuntza gabeko jendea ate batetik sartu eta titulua eskuetan zuela bestetik irteten zelako.

Baina 1934. urtean sartutakoan, oraino geldiro bederen, Madrileko kudeaketak, soslai ona hartu zuten. Maiatzeko hilean amaitu ziren erabakiak eta ekainaren letik aurrera hasi ziren interesatuak izendapen nagusienak jasotzen: Ernesto Halffter, Kontserbatorioko Zuzendari eta Ahots eta Instrumentu Konjuntoen Katedratiko; Norberto Almandoz, Kontrapunto eta Fuga Katedratikoa; Eduardo Torres, Konposizio Katedratikoa; Telmo Vela, Ganbara Musika Katedratikoa. Musikaren Historia Katedratikoa, eta hauei zegozkien beste bost laguntzaile izendatzea faltatzen zen.

Ernesto Halffterek, Norberto Almandoz eta Eduardo Torresengan zeukan bere konfidantza osoa, apaizak biak ere, kalitateko bi artekari handi bezala, bai baitzekien bi hauek ondo ordezkatuko zutela, Espainia osoan eta hortik kanpora ere hitzartuta zeuzkan kontzertuengatik bera faltatzen zenean.

1934-35. ikastaroa hasitakoan, abenduko hilean bapatean eta ustekabez Eduardo Torres hil zen, bere katedraren ihardueran hilabete gutxi batzuk egin ostean. Kontserbatorioko Zuzendari Ernesto Halfferren bidai ugariak zirela eta, Norberto Almandozek Kontserbatorioko Zuzendariorde izendapena jaso zuen Madriletik 1935ko azaroan. Bera izango zen eguneroko lanean ardura gehiena bizkarreratuko zuena. Hala ere ordea, beti zeuden Zuzendariari Catedral y famosísimo compositor, y Ernesto Halffter, ambos propuestos para cargos importantes.

A pesar de la confianza en una solución favorable, el profesorado no titulado optó por presentarse al Conservatorio de Córdoba, para conseguir los títulos necesarios. La misma operación que en 1930 había realizado Norberto Almandoz. Pero con una diferencia sustancial. Este poseía una formación y unos conocimientos, que se merecían "honoris causa" y con toda justicia el reconocimiento oficial. Entre los demás compañeros predominaba una gran voluntad, pero una mediocridad técnica reconocida, salvo honrosas excepciones.

La facilidad con que fueron consiguiendo los títulos apetecidos, fue muy mal vista desde Madrid. El sevillano Joaquín Turina, a la sazón catedrático de composición en el Conservatorio de Madrid, escribió en "El Debate" una dura página, en la que llamaba "Conservatorio eléctrico" al de Córdoba, porque gente mal preparada entraba allí por una puerta y salía por otra con el título en las manos.

Entrados en 1934, las gestiones en Madrid, aún con lentitud, adquirieron buen sesgo. En el mes de mayo quedaron concluídas las decisiones y desde el 1 de junio fueron recibiendo los nombramientos principales los interesados: Ernesto Halffter, Director del Conservatorio y Catedrático de Conjunto Vocal e Instrumental; Norberto Almandoz, Catedrático de Contrapunto y Fuga; Eduardo Torres, Catedrático de Composición; Telmo Vela, Catedrático de Música de Cámara. Faltaba el nombramiento del Catedrático de Historia de la Música, más el de los cinco auxiliares correspondientes.

Ernesto Halffter tenía toda su confianza puesta en Norberto Almandoz y Eduardo Torres, dos sacerdotes, como dos gestores de gran calidad, que suplirían sus ausencias por los conciertos comprometidos por España y fuera de ella.

Iniciado el curso 1934-35, en el mes de diciembre fallecía inesperadamente Eduardo Torres con muy pocos meses de ejercicio de su cátedra. Ante los frecuentes viajes del Director del Conservatorio, Ernesto Halffter, desde Madrid recibió Norberto Almandoz en noviembre de 1935 el nombramiento de Subdirector del Conservatorio. En la práctica sería él, quien llevaría el mayor peso de los trabajos. Sin embargo siempre quedaban funciones exclusivas del Director, que por sus ausencias sufrían demoras.



Oscar Esplá eta bere emaztea, Norberto Almandoz eta Ernesto Halffter.

Norberto Almandoz mantenía con Halffter permanente correspondencia sobre asuntos del Conservatorio. Pero en algunos momentos le expresaba con tintes pesimistas los múltiples problemas existentes, algunos debidos a su ausencia.

En enero de 1936 Ernesto Halffter ganó por concurso la beca Conde de Cartagena de la Academia de Bellas Artes de San Fernando, cuyo reglamento exigía que el ganador residiese en el extranjero por un año. Obtenido el permiso correspondiente del Ministerio de Instrucción Pública, Halffter se trasladó a Lisboa. Desde allí permanecía en contacto con Sevilla. Pero esta ausencia prolongada complicó la situación del Conservatorio de tal manera, que en noviembre de1936 fue destituido de sus cargos de Director y Catedrático. Automáticamente se produjo el nombramiento de Norberto Almandoz, como Director del Conservatorio por orden dictada el 25 de noviembre de 1936, tomando posesión de su nuevo cargo el 4 de diciembre siguiente.




Norberto Almandozek Sevillan sortutako Kontserbatorioaren gelak.

Locales del Conservatorio de Sevilla, fundado por Norberto Almandoz.

soilik zegozkionak eta honen kanporaldiekin atzerapenak jasaten zituztenak.

Norberto Almandozek etengabeko hartu emanak zituen Halffterrekin Kontserbatorioko gorabeherei buruz. Baita aldizka kutsu ezkor nabaria zuten gutunak bidali ere, zeuzkan arazo ugariak, batzuk bere kanporaldiengatik, adierazten zizkiolarik.

Hala, 1936ko urtarrilean Ernesto Halffterrek "Conde de Cartagena de la Academia de Bellas Artes de San Fernando"ren beka irabazi zuen lehiaketa bidez, bertako arautegiak irabazlea urtebetez atzerrian bizitzea exigitzen zuelarik. Ministerio de Instrucción Pública delakoaren eskutik zegokion baimena lortu ostean, Halffter Lisboara joan zen. Handik etengabeko harremanak mantentzen zituen Sevillarekin. Halabaina, kanporaldi luze hori bide Kontserbatorioaren egoera hainbeste konplikatu zela eta, 1936ko azaroan Zuzendari eta Katedratiko karguetatik kendu zuten. Automatikoki Norberto Almandozen izendapena etorri zen, Kontserbatorioko Zuzendari bezala 1936ko azaroaren 25eko agindu baten arabera, urte bereko abenduaren 4ean kargu berria hartu zuelarik.

Ahora sí está en el uso de todas sus facultades y responsabilidades. Norberto Almandoz era considerado un hombre de gran honestidad en toda su conducta y, al mismo tiempo, un talento de grandes exigencias y de proyectos de alto nivel. La tradicional figura misteriosa del sacerdote era equilibrada por su trato afable y cordial con profesores y alumnos. Sin entrometerse en las responsabilidades de los compañeros catedráticos, ejercía un serio seguimiento de los alumnos, promocionando en ellos el sentido elevado de la música, antes que la frialdad de la técnica.

Estricto en el cumplimiento de sus obligaciones, también lo era en la exigencia de que los profesores cumpliesen los suyos. Impuso, pues, un ritmo de gran seriedad a las clases, lo que dio al Conservatorio un prestigio muy bien visto desde Madrid. Lo que había nacido con humildad y gran sacrificio llegó en el transcurso de su Dirección a la Categoría de Conservatorio Profesional.

No era el domicilio donde se había ubicado el Conservatorio, el lugar más apropiado para sus



Kontserbatorioko irakaslegoa beren senitarteko eta Norberto Almandozekin.

Claustro de profesores del Conservatorio con sus familiares y Norberto Almandoz.

Orain bai esan daitekeela, ahalmen eta erantzunkizun guztiak bere esku dituela. Leialtasun handiko gizona kontsideratzen zen Norberto Almandoz bere portaeran eta, exigentzi handitako talentua eta maila altuko proiektuak aldi berean. Apaizaren ohizko itxura misteriotsua zeharo orekatua gelditzen zen irakasle eta ikasleekin zuen tratu atsegin eta bihotzekoarekin. Katedratiko lankideen erantzunkizunetan sar gabe, ikasleen jarraipen serio bat egiten zuen, musikaren goi mailako zentzua eraginez, teknika soilaren hoztasunean gelditu gabe.

Zorrotza zen bere zereginen betebeharretan, irakasleek bereak betetzeko orduan zorrotza zen bezalaxe. Hori horrela, seriotasun handiko erritmoa ezarri zuen klaseetan, eta Madriletik oso ongi ikusitako ospea eman zion Kontserbatorioari. Hara ba, apaltasunez eta neke haundiz jaiotakoa, Almandozen Zuzendaritzaren denboran non heltzen den Kontserbatorio Profesionalaren Mailara.

Ez zen ordea, Kontserbatorioa kokatu zen toki hau lekurik egokiena berak zituen helburuetarako. Horregatik 1940ko hamarkadan borroka luzea iraun zuen Madrileko instantziekin, edifizio egoki baten eraikintza lortu artean.

Etengabeko hartuemanak zituen beste Kontserbatorioekin, Madrilekoarekin batez ere, eta hemengo Joaquin Turina, Bernardo Gabiola, Nemesio Otoño eta Jesus Guridirekin harreman handia izan zuen. Baita Valentziakoan Manuel Palaurekin eta Donostiakoan Ramon Usandizaga eta Franzisko Escuderorekin.

Azterketa garaian obsesio berezia zuen bere eskura zeuden epaimahai guztietan buru izateko. Bere presentziarekin exigentzi eta zuzentasun maila altuago bat bilatzen zuen azterketatzaileen erabakietan, Kontserbatorioaren ospea goian mantentzeko helburuarekin. Hauek izango dira bere kudeaketaren haririk nagusienak, 1963an erretiratu zen arte.

Almandozen zuzendaritzaren ibilbideak ministeritzaren dekretuak eragindako alternatibak jasan zituen, gehienetan Ministro aldaketek eragindakoak. Bestalde, Zuzendari bezala ihardun zuen 27 urteetan Sevillatik kanpo denboraldi luzeak egin zituen bere osasun arazoak bitarteko. Bere bizitzako azken urteetan okertzen joan zen arazoa bestetik. Antolatzaile



Foto de Norberto Almandoz, dedicada a su hermana Concha, maestra en Toulouse.

fines. Por eso en la década de 1940 mantuvo una larga lucha con las instancias de Madrid, hasta conseguir la construcción del edificio adecuado.

Sus contactos con otros Conservatorios eran constantes, especialmente con el de Madrid, donde mantuvo gran relación con Joaquín Turina, Bernardo Gabiola, Nemesio Otaño y Jesús Guridi. En el de Valencia con Manuel Palau y en el de San Sebastián con Ramón Usandizaga y Francisco Escudero.

En período de exámenes tenía una particular obsesión por presidir cuantos tribunales estuviesen a su alcance. Buscaba con su presencia un nivel de exigencia y justicia en las decisiones de los examinadores, con el fin de mantener muy elevado el prestigio del Conservatorio. Estas son las líneas principales de su gestión hasta su jubilación en 1963.

La trayectoria de su dirección sufrió las alternativas originadas por los decretos ministeriales, general-



Norberto Almandoz, 1938an "Academia de Bellas Artes de Santa Isabel de Hungría"n sartu zenean eskainitako omenaldia.

Homenaje a Norberto Almandoz por su ingreso en la Academia de Bellas Artes de Santa Isabel de Hungría en 1938.

bezala zituen dohaiak nabarmen gutxitu ziren. Eta Kontserbatorioan bizi bazen ere, bertako arazoetatik at zegoen ia erabat. Hala eta guztiz ere, pertsona lasai eta atsegina izaten jarraitzen zuen bera ezagutzen eta tratatzen zuten hainbatentzat.

Erretiroaren egun ofiziala heldutakoan, bere miresle sutsu zirenek Norberto Almandoz Kontserbatorioko Zuzendari izaten jarraitzeko gestioak egin zituzten Madrilen. Eta baita lortu ere, zeren 1963ko uztailaren 15eko data zuen komunikatu hau jaso zuen Norberto Almandozek, Gratiniano Nieto, Arte Ederretako Zuzendari Nagusiak sinatuta:

"Nahita utzi ditut egun batzuk igarotzen zure erretiroko data heldutakoan eskutitz hau idazteko, bertan Ministro j.aren eta nirea den nahia ager nahi dizudalarik, hots, Sevillako Kontserbatorioaren zuzendaritzan B.ek jarrai dezala alegia, ikusirik irakaslegoarengan B.ek duen eragina eta Zentruari dion maitasuna; ez dut inolako zalantzarik irtenbide hau zentruarentzat egokiena dela esaterakoan, honen alde gogo biziz hainbeste lan egin duen horrek..."

Norberto Almandozek karguan jarraitzeko eskaintza onartu zuen. Baina aldi berean zuzendariorde baten

mente producidos con el cambio de Ministro. Por otro lado también en sus 27 años de Director sufrió períodos de ausencias prolongadas de Sevilla por razones de salud. Esto se fue complicando seriamente en los últimos años de su vida. La disminución de sus facultades de organizador era palpable. Vivía en el Conservatorio, pero prácticamente aislado de sus problemas. Con todo seguía siendo una figura señera para cuantos con él trataban.

Llegada la fecha oficial de su jubilación, el grupo de adictos admiradores suyos gestionaron en Madrid la continuación de Norberto Almandoz, como Director del Conservatorio. La operación fue positiva, puesto que con fecha de 15 de julio de 1963 Norberto Almandoz recibía el siguiente comunicado, firmado por Gratiniano Nieto, Director General de Bellas Artes:

"Deliberadamente he dejado pasar unos días desde la fecha de su jubilación, para escribirle esta carta, en la que quiero exponerle el deseo del Sr. Ministro y el mío de que continue V. en la dirección del Conservatorio de Sevilla, dada la autoridad que sobre todo el profesorado tiene V. y su cariño a ese Centro; no dudo de que esta es la solución que más



Omenaldi ondorengo oturuntza.

Agape tras el homenaje.

izendapena sustatu zuen, bere konfidantza eta erantzunkizun ugari, gogoko zuen norbaitengan utz zitzan. Neurri hauek ez zioten ordea, poz haundirik eman irakasle talde bati. Guztiek miresten eta errekonozitzen zuten Kontserbatorioaren fundatzaile bezala eta kategori eta ospea itzela honentzat lortu zuen gizona bezala. Halabaina kontziente ziren bere osasun egoera fisiko eta animikoaz, eta uste zuten Kontserbatorioak bere zuzendaritzapean jarraitzen bazuen laster hartuko zuela ekidinezinezko goitik beherako abiada.

Irakasle desberdin ugarik izenpetu zuten manifestu bat zabaldu zen eta baita horrelako gaiaz arduratzen zen Madrileko Ministeritzan aurkeztu ere. Honela zioen testuak:

"Norberto Almandoz j.a, Zentru honetako Zuzendaria da inolako zalantzarik gabe Espainiako Musikaren figurarik aipagarrienetariko bat, Kontserbatorio honen alde eta gure Musikaren alde eginiko lanengatik, eta gizon eta Apaiz bezala eredu den hau, Klaustro honen, Espainiako Musikaren eta Sevillaren errekonozimendu handienaren merezigarri da.

Errekonozimendu hauen eta Zentru honetako Zuzendari karguan jarraitzeko komenigarritasunaren arte-

interesa en el centro, por el que con tanto interés ha trabajado V. con especial eficacia..."

Norberto Almandoz aceptó la oferta de continuidad en el cargo. Pero al mismo tiempo promovió el nombramiento de un subdirector, en quien pudiera él depositar su confianza y muchas de sus responsabilidades. Estas medidas no satisficieron a un grupo de profesores. Todos le admiraban y reconocían como el fundador y el hombre que había conseguido una gran categoría y prestigio para el Conservatorio. Pero eran conscientes de su situación física y anímica, y consideraban que con él al frente se iniciaba un inevitable declive.

Se divulgó un manifiesto, que fue firmado por distintos profesores y presentado en el Ministerio madrileño correspondiente. El texto decía:

"D. Norberto Almandoz, Director de este Centro, es sin duda alguna una de las figuras más relevantes de la Música Española, que por sus trabajos en pro de este Conservatorio y de nuestra Música, figura de hombre y Sacerdote ejemplar, es acreedor del mayor reconocimiento de este Claustro, de la Música Española y de Sevilla.

an erabateko bereizpena egin nahiean, uste dut: Irakasle Klaustro honek Zentruaren aribide ona, bertako Zuzendaritza eraginkorra eta sail pedagogiko, tekniko eta administratiboetan funtzionamendu on bat zaindu behar duenez, nire ezadostasuna adierazten dut gaurregungo zuzendaritza erregimenarekin; aipaturiko karguan jarraitzeko aukera, Norberto Almandoz j.a bezalako pertsona duin batek egiaz eta libreki ihardun duen zuzendaritza bat kaltetu edo murriztu lezakeen zirkunstantzien berrikusketa batetara baldintzatua egongo litzatekeela.

Eta Aktan ager dadin (Araudiaren 89. art.) eta nire botoaren arrazonamendu bezala. Sinatzen dut: X X ".

Manifestu honekin zerikusia zuten eta beharrezko ziren kontsultak Madriletik eginda gero, bere erretiro ostean karguari ekin eta urtebetera, Norberto Almandozek Manuel Lora Tamayo, Hezkuntz Nazionaleko Ministrariagandik Sevillako Musika Kontserbatorio Profesionaleko Ohorezko Zuzendari izendapena jaso zuen, 1964ko abuztuaren 12ko aginduaren arabera.

Eta zuzendaritza kargurako Manuel Castillo katedratikoa izendatu zuten, Norberto Almandozen ikasle izandakoa eta 1963an Almandoz berak zuzendariorde postua betetzeko proposaturikoa, ondoren Zuzendaritzan jartzeko asmoarekin.

Deseando hacer una distinción total entre estas afirmaciones y la conveniencia de su continuidad en el cargo de Director de este Centro, estimo: que debiendo el Claustro de Profesores velar por la marcha del Centro, la eficaz Dirección del mismo y su buen funcionamiento en los aspectos pedagógicos, técnicos y administrativos, manifiesto mi disconformidad con el régimen directivo actual; la oportunidad de su continuidad en el referido cargo estaría condicionada a una revisión de las circunstancias que puedan afectar o disminuir una dirección ejercida real y libremente por la persona dignísima de D. Norberto Almandoz..

Para que conste en Acta (Art. 89 del Reglamento) y como razonamiento a mi voto Firmo: X X "

Realizadas desde Madrid las correspondientes consultas relacionadas con este manifiesto, al año de la reafirmación en el cargo tras su jubilación, Norberto Almandoz recibió del Ministro de Educación Nacional, Manuel Lora Tamayo, el nombramiento de Director Honorario del Conservatorio Profesional de Música de Sevilla, por orden de 12 de agosto de 1964.

Fue nombrado Director el catedrático Manuel Castillo, que había sido discípulo de Norberto Almandoz y en 1963 propuesto por él mismo para el puesto de subdirector, con vistas a la sucesión en la Dirección.

## Katedraleko Kalonje eta Kapera-Maisu.

Sevillako Katedraleko Kapera-Maisu zen Eduardo Torres, 1934ko abenduan hiltzerakoan, berak uzitako plazak ordezko baten izendapena eskatzen



Norberto Almandoz Mendizábal
Beneficiado Organista 1.º de la Santa Iglesia Catedral
nombrado por su Eminencia el Sr. Cardenal D. Pedro Segura,
Canónigo Maestro de Capilla de dicha Santa Iglesia,
invita a V. a la toma de posesión que tendrá lugar
después de las horas canónicas de la mañana
el día 31 del corriente.

Sevilla, Mayo 1939

Norberto Almandozek Kalonje Kapera-Maisu kargua hartzerakoan eginiko gonbidapena.



Norberto Almandoz Kalonje ihardueran ohizko jantziarekin.

## Canónigo y Maestro de Capilla de la Catedral.

Al morir Eduardo Torres, Maestro de Capilla de la Catedral de Sevilla, en diciembre de 1934, su plaza vacante reclamaba el nombramiento de su sucesor. Pero era ésta una cuestión en la que los obispos nunca se daban prisa. Las funciones correspondientes eran ejercidas por elementos de la Capilla musical. Asi transcurrió todo el año 1935 y, cuando en 1936 estalló la guerra española, la cuestión perdió urgencia.

A1 fin en 1939 el Cardenal Pedro Segura nombró a Norberto Almandoz Canónigo Maestro de Capilla el día 19 de mayo, tras pedir bajo secreto el consejo del Cabildo. El Maestro de Capilla anterior no ostentaba la categoría de Canónigo. El nombramiento de Norberto Almandoz suponía una investidura de mayor autoridad dentro del Cabildo. El 31 de mayo de 1939 tuvo lugar la toma de posesión de sú nuevo cargo. Con este motivo él escribió al P. Otaño las palabras siguientes: "...El Sr. Cardenal lo hizo sin presión, ni indicación alguna. El primer sorprendido fui yo mismo. Procuraré trabajar -ya que él me ha prometido su colaboración y ayuda- todo lo que pueda en el nuevo cargo, para el que pido a Dios abundantes gracias..."

Su plaza vacante de organista fue cubierta provisionalmente por Abel Otero. Pero entre las amistades que Norberto Almandoz mantenía con vascos residentes en Sevilla, uno de ellos, Angel Urcelay, era un organista y sacerdote vasco, desterrado a estas tierras por haberse caracterizado en la preguerra española por su entrega a la cultura musical vasca. Presentado por Almandoz para sucederle en su puesto, fue examinado con distintas pruebas. Encontrado apto, se le concedió la plaza de Organista 1°, con lo que ahora la música de la Catedral estaba en manos de dos paisanos vascos desde diciembre de 1939.

Angel Urcelay (Zarauz 1904-1992) había sido director del Orfeón de Ondárroa, con el que había obtenido importantes triunfos en el País Vasco. Aunque había hecho sus pinitos de compositor, no era éste su fuerte. En resumen, era mejor director que compositor e incluso que organista. Esta aptitud se manifestaría pronto, fundando en 1944 la Escolanía

zuen. Baina arazo hau izan da beti Gotzainek inolako presarik agertu ez dutena. Kargu horri zegozkion funtzioak musika Kaperako elementuek betetzen zituzten. Horrela igaro zen 1935eko urte osoa, eta 1936ean gerra zibila hasitakoan, eskuarteko arazoak zuen premiatasun guztia galdu zuen.

Baina azkenik, 1939ko urtean eta maiatzaren 19an Pedro Segura Kardinaleak Norberto Almandoz Kapera-Maisu Kalonjea izendatu zuen, Kapituloaren aholkua isilpean eskatu ondoren. Honen aurreko Kapera-Maisuak ez zuen Kalonje kategoriarik. Norberto Almandozen izendapenak autoritate handiagoko inbestidura suposatzen zuen Kapituloaren barruan. Maitzaren 31ean hartu zuen bere gain kargu berria. Honen kariaz ondorengo hitz hauek idatzi zizkion A. Ota:ori: "...Kardinale J.ak behartu gabe egin zuen, inolako oharrik gabe. Ni neroni izan nintzen lehenengo harritutakoa. Saiatuko naiz -berak bere lankidetza eta laguntza agindu didanez gero- kargu berrian ahal dudan lan guztia egiten, horretarako Jaungoikoari grazia ugari eskatzen dizkiotelarik".

Berak utzitako organista plaza Abel Oterok bete zuen behin behinekoz. Baina Sevillan bizi ziren euskaldunen artean Norberto Almandozen adiskidea zen Angel Urzelai zegoen besteak beste, organista eta apaiz euskalduna, lurralde hauetara atzerriratua izandakoa, Espainiako gerra aurrean euskal kultura musikalaren alde nabarmentzeagatik. Norberto Almandozek bere lekuan jarraitzeko honen izena proposatu ostean, zenbait froga desberdin egin zizkioten. Ikusirik lan horretarako gai zela, Lehen Organista plaza eman zitzaion eta 1939ko abenduaz geroztik, Katedraleko musika bi herkide euskaldunen eskuetan geldiu zen.

Angel Urzelai (Zarautz 1904-1992) Ondarruko Orfeoiaren zuzendari izana zen eta Euskal Herrian garaipen garrantzitsuak eskuratutakoa. Musikagile bezala bere zertzeladak emanak bazituen ere, ez zen hau bere alderik onena. Hitz bitan esanda, musikagile baino zuzendari hobea zen, are gehiago, baita organista baino ere. Gaitasun hau laster nabarmenduko zen, 1944ean Escolania de Nuestra Señora de los Reyes fundatuz, bertan kontzertu ihardüera garrantzitsu bat garatu zuelarik, eta Capilla Isidoriana-ko abesbatza zuzendu.

Norberto Almandozek Kapera-Maisu plaza onartutakoan, gorago aipatu dugun legez, bost urte zera-



Norberto Almandoz y Angel Urcelay, sucesor del primero en la organistía de la Catedral de Sevilla y en 1960 en el Magisterio de Capilla.

de Nuestra Señora de los Reyes, con la que desarrolló una importante actividad concertística, dirigiendo también el coro de la Capilla Isidoriana

Al acceder Norberto Almandoz a la plaza de Maestro de Capilla, llegaba tras cinco años de ausencia de titular, como ya lo hemos apuntado anteriormente. Este paréntesis dejaba huella evidente en el nivel artístico de la Capilla musical. A Norberto Almandoz le correspondía poner en marcha todos los recursos y devolver a la liturgia catedralicia el mayor esplendor. Pero, antes de seguir adelante, establezcamos una teoría: un buen compositor, rara vez es un buen director; un buen director, rara vez es un buen compositor. Norberto Almandoz había demostrado con creces su valía como compositor. ¿Cómo sería desde ahora su trayectoria como director?



Norberto Almandoz, Sevillako "Acción Católica" emakumezkoen abesbatzaren sortzaile eta zuzendari.

Norberto Almandoz, fundador y director del coro femenino de Acción Católica en Sevilla.

matzan plaza honek titularrik gabe. Denboratarte honek bere arrastoa utzi zuen Kaperako musika maila artistikoan. Norberto Almandozen egitekoa baliabide guztiak martxan jartzea zen eta Katedraleko liturgiari osperik handiena itzultzea. Halere, aurrera jo aurretik ezar dezagun teoria bat: musikagile ona, gutxitan da zuzendari ona; zuzendari ona, musikogile on gutxitan den bezalaxe. Norberto Almandozek oparo erakutsiak zituen konpositore dohaiak. Baina nola izango ote bere zuzendari ibilbidea hemendik aurrera?.

Betebehar nagusienen artean, Katedraleko elizkizunetarako musika egokia prestatzea zegoen, horretarako abeslari talde murriz bat zeukan bere aginduetara.

Honela zioen Aita Donostiak (A. José Antonio) 1943ko maiatzean umorez eta ironiaz idatzitako gutun batean: "... Uste dut ongi eta zoriontsu jarraituko duzula, kalonje baitzera..." Norberto Almandozek postaz itzuli zion erantzuna: "Pepe adiskidea:...

Sus obligaciones se centraban en preparar la música necesaria para los cultos litúrgicos de la Catedral, teniendo bajo sus órdenes una plantilla de cantores muy mermada.

En mayo de 1943 el Padre Donostia (P. Jose Antonio), le decía en una carta con humor e ironía: "...Supongo seguirás bien y muy feliz, pues eres canónigo..." Norberto Almandoz le contesta a vuelta de correo: "Querido Pepe:... Ya sabes que la canongía tiene anejo el Magisterio de Capilla, y esto complica ya un poco la cosa, sobre todo en catedral de tanto movimiento como ésta, donde siempre hay algo que preparar. El Conservatorio me da también bastante trabajo; tengo por añadidura un corito de voces femeninas donde, entre otras muchas cosas, hemos cantado tu "Estrella Hermosa", "Pascua Florida"... tan preciosas, como todo lo que brota de la feliz pluma del ilustre capuchino..."

Vemos por estas palabras que Norberto Almandoz se había complicado con la fundación de un coro

Jakin badakizu kalonjeak atxekirik duela Kapera-Maisutza eta horrek gauzak zertxobait korapilatzen dituela, honek bezala mugimendu asko duen katedroletan batez ere, beti baitago zerbait prestatzeko. Kontserbatorioak ere nahiko lan ematen dit; eta hori gutxi balitz emakumezkoen abesbatz txiki bat daukot, non besteak beste, hain zoragarriak diren zure *"Estrella Hermosa", "Pascua Florida"*... abestu ditugun, kaputxino jakintsu baten zorioneko lumatik irteten den guztia bezalaxe..."

Hitz hauek irakurriz gero antzematen dugu Norberto Almandoz emakumezkoen abesbatz baten fundazioan nahasi zela, Acci<n Catolicako gazteen artean sortua. Bestalde zenbait jai handitan Elizbarrutiko Apezgaitegiko abesbatzak ere parte hartzen zuen Katedraleko ospakizunetan, musika Kaperarekin batera kantatuz. Honek guztiak entsaio eta prestakuntza gehiago suposatzen zuen, gutxi edo asko bere bizitza zamaberritu eta musika konposaketarako geroz eta eragozpen gehiago eransten zizkiotenak. Hainbestetan bere burua sarturik zeukanez, konposatzea "behar zuen" talentu sutsu hura, bizitzaren eskakizunez ezarian-ezarian itzaltzen joan zen.

Sekularren estatutoek urtean hainbesteko obra kopuru bat konposatzea exigitzen zioten Kapera-Maisuari. Eta hau izan zen hain zuzen ere Katedraletako artxibategiek musika aldetik izan zuten aberastasun iturria, arauak zorroztasunez betetzen baitziren eta idatzitako partiturak Katedralaren jabegoan gelditzen. Norberto Almandozek kargua hartzen duenean, arauak bere horretan darrai, baina inori ez zitzaion burutik pasatzen betebehar hori salatzea. Ulertzen ez zen kontraesan garbia, edonondik begiratuta ere.

Norberto Almondozek ez zuen alde batera erabat utzi konposisioa. Hor daude Tesoro Sacro Musical aldizkarian bereziki argitaraturiko obrak, non 1940-1967 denboraldian 20 lan berri baino gehiago argitaratu zitzaizkion. Egia da bai partitura hauetariko asko enkargu eta eskari pertsonalen ondorio direla. Baina horregatik hain zuzen ere gehiago harritzen du oraino, guztien iritzian hain musikagile bikaina zen hau, artxibategiko ondarea aberasteko Katedraleko agintari gorenek ez ordezkatu izana, ze argitaratu eta edozein artxibategi arruntean jasotako partitura gutxi batzuk besterik ez baitditu. Guretzat noski, zabarkeria errudun baten adierazle da, baina Astigarragako musikariari bizkarreratu ezin zaiona.

femenino, compuesto de jóvenes de Acción Católica. Además en determinadas fiestas el coro del Seminario Diocesano participaba en los cultos de la Catedral, cantando en unión con la Capilla musical. Todo esto suponía un aumento de ensayos y trabajos previos, que sobrecargaban su vida y aumentaban los obstáculos para dedicarse a la composición musical. Aquel talento fogoso, que "necesitaba" componer, fue diluyéndose por los imperativos de la vida, en la que se vio envuelto.

Secularmente los estatutos exigían al Maestro de Capilla componer anualmente un número determinado de obras. Esta disposición había sido el origen del enriquecimiento musical de los archivos catedralicios, puesto que la norma se controlaba con rigor y las partituras escritas quedaban en propiedad de la Catedral. Cuando Norberto Almandoz accede al cargo, el reglamento mantenía la misma exigencia, pero a nadie se le ocurría reclamar su cumplimiento. Lo que no dejaba de ser una incomprensible contradicción.

Norberto Almandoz no dejó por completo la Composición. Ahí están sus obras publicadas especialmente en la revista Tesoro Sacro Musical, donde se le editaron más de 20 nuevas obras en el período 1940-1967. Muchas de estas partituras se debían a encargos y peticiones personales. Por eso mismo sorprende más que quien era considerado un excelente compositor en el criterio de todos, no hubiera sido emplazado por los superiores de la Catedral, para enriquecer los fondos de su archivo, que apenas dispone de unas pocas partituras suyas editadas y pertenecientes al acerbo común de cualquier archivo. Para nosotros esto es índice de una incuria culpable, que no puede atribuírse al músico de Astigarraga.

Los seises eran una auténtica institución en la tradición secular de la Catedral hispalense. Pero históricamente los seises eran en todas las catedrales la prueba más dura para los Maestros de Capilla en el ejercicio de sus funciones.

La decadencia con que en 1939 se realizaban los Bailes de los Seises no encontraron en Norberto Almandoz un renovador apropiado. Los mantuvo en la línea, en que los había recibido y así perdurarían bajo su mandato.



"Seises" eta Kalonje taldea Sevillako prozesioan. Grupo de Seises y Canónigos en una procesión de Sevilla.



"Seises" eta Kalonje taldea Sevillako prozesioan. Grupo de Seises y Canónigos en una procesión de Sevilla.

Sevillako Katedralaren tradizio sekularrean benetako instituzio bat ziren "seises"ak. Historikoki ordea, katedrale guztietako Kapera-Maisuentzat "seises"ak ziren frogarik gogorrena betekizunen ihardueran.

Heldu da 1939. urtea eta Bailes de los Seises delako hauek bizi zuten gainbeheradak, ez zuten aurkitu Norberto Almandozengan berritzailerik egokiena. Bere horretan mantendu zituen eta hartu bezalaxe iraun zuten bere agintaldian.

Antzeko zerbait esan dezakegu Kapera musikaleko zuzendaritza iharduera ere. Irizpide aukeratzailea zuen katedraleko liturgietan interpretatu behar ziren partituretan. Baina bere kargu zeukan plantilari ezin zitzaion luxo handirik eskatu. Hala ere emanaldi berezietan eta tartekako ahaleginari esker emaitz artistikoak puntu anitz irabazten zituen eta Norberto Almandozen izena ahoz aho pasiatzen zen. Egun berezirik baldin bazen, hau Eslavaren *Miserere* interpretatzen zen eguna izaten zen, Sevillako *Miserere* ere deitzen zitzaiona. Egun honetarako ahalegin guztiak eginda ere gutxi ziren. Eslavaren *Misereren* historia zabal bat azaltzen du José Enrique Ayarrak bere "Hilari<n Eslava en Sevilla" obran. Nik ez dut 1940tik 1945era ahots eta intrumentuen konjunto guztia Norberto Almandozek zuzendu zuela azpimarratu baizik egingo, egun horietarako Donostiako Easo Abesbatzako kide garrantzitsuak ekartzea lortu zuelarik, musika Kapera, Apezgaitegiko korua eta Sevillako beste zenbait elementurekin batera abesteko. 1940ean agertu zen lehenengo aldiz Sevillan Franzisko Sarobe, Norberto Almandozen oso lagun egin zen opera enpresaria. Elkarrekin berreskuratu zuten aspaldi galdutako ohitura sebilarra, hots, Opera denboraldia Bazko Larunbatean inauguratzea. Honela, opera denboraldia hasi aurretik Eslavaren *Miserere* abesten parte hartzen zuten tenore eta baju nabarmenenak, egun batzuk lehenago kontratatzen zituzten.

Laburbilduz esan daiteke, Norberto Almandoz oposiziorik gabe heldu zela Kapera-Maisu lekura, baina bere hautaketan eragina izan zuen ospe berezi batez inguratuta, eta agintaldi osoan jaso zuen nolabaiteko gurtzapen estimazioa. Ez zen bidezko bestela deitzea, hots, Don Norberto Almandoz, Katedraleko Kapera-Maisu Kalonjea, ospetsu batekin izan ezik. Hala diote behintzat bere garaikideek.

Algo similar podemos afirmar de su actividad como director de la Capilla musical. Había en él un criterio selectivo de partituras que habían de interpretarse en la liturgia catedralicia. Pero la plantilla no daba para lujos. En ocasiones especiales gracias a refuerzos ocasionales el resultado artístico ganaba muchos enteros y el nombre de Norberto Almandoz corría de boca en boca. Fecha singular era el día de la interpretación del Miserere de Eslava, llamado el Miserere de Sevilla. Para esta ocasión todos los esfuerzos eran pocos. La historia del Miserere de Eslava está ampliamente descrita por José Enrique Ayarra en su obra "Hilarión Eslava en Sevilla". Yo me limito a resaltar que de 1940 a 1945 dirigió todo el conjunto de voces e intrumentos Norberto Almandoz, quien consiguió traer para estas fechas a importantes refuerzos del Coro Easo de San Sebastián, que se unían a la Capilla musical, coro del Seminario y otros elementos sevillanos. En 1940 apareció por primera vez en Sevilla Francisco Sarobe, empresario de ópera, que trabó gran amistad con Norberto Almandoz. Juntos recuperaron la cos-



De izquierda a derecha Gabriel Olaizola, bajo del Miserere de Eslava, Norberto Almandoz, el pintor Ramón Zubiaurre y el compositor Félix Tellería (1929).

Norberto Almandozen hainbat alderdi musikal behatzen ditugunontzat, ez zen Kapera musikaleko zuzendariarena alderik aipagarriena. Guk geure teoria mantentzen dugu, hots, konpositore on bat, eta bera ona zen, oso-oso gutxitan izaten dela zuzendari on bat.

1959ko ekainean Kapera-Maisu kargua utzi zuen erretiratzen zelako. Bera zen bezala izanda honek arintasun handia suposatu zuen, osasun aldetik nahiko zigortua baitzegoen dagoeneko. Oraindik ordea, musika Kontserbatorioan eta Sevillako ABCren musika kritikari lanetan jarraitu zuen eta baita aldizka musika konposizio enkargu batzuk onartu ere.

Honetan, 1960. urtean, Angel Urzelai 1951az geroztik Kanonigo zenak bete zuen Norberto Almandozek hutsik utzitako plaza.

tumbre sevillana, perdida hacía muchos años, de inaugurar el Sábado de Gloria la temporada de ópera. De esta manera contrataban con unos pocos días de antelación a tenores y bajos destacados, que habían de intervenir en el Miserere de Eslava, antes de abrir la temporada de ópera.

En resumen, Norberto Almandoz llegó al Magisterio de Capilla sin oposiciones, pero rodeado de un prestigio singular, que influyó en su elección y que se mantuvo durante su mandato en forma de aprecio reverencial. No era posible nominarle, sino con un solemne Don Norberto Almandoz, Canónigo Maestro de Capilla de la Catedral. Así lo testifican sus contemporáneos.

Para nosotros, que contemplamos las múltiples facetas musicales de Norberto Almandoz, no era la más destacada la de director de la Capilla musical. Mantenemos nuestra teoría de que un buen compositor, como era él, rara vez es un buen director. En junio de 1959 cesó por jubilación en su cargo de Maestro de Capilla. Esto fue un gran alivio para su naturaleza, que estaba ya muy castigada por diversas dolencias. Todavía continuaba al frente del Conservatorio de música y como crítico musical del ABC de Sevilla, además de aceptar algunos encargos de composición musical.
En 1960 Angel Urcelay, que ya era Canónigo desde 1951, ocupó la plaza de Maestro de Capilla, que había dejado vacante Norberto Almandoz.

## NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL, APAIZ ETA MUSIKAGILEA

**Kontzertu antolatzaile.**
**ABCko kritikaria, Sevillako argitalpenean (1935-1970).**

## NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL, SACERDOTE Y COMPOSITOR

**Promotor de conciertos.**
**Crítico del ABC, edición de Sevilla (1935-1970).**

## Kontzertu antolatzaile.

Esan daiteke Kontserbatorioan eta Kapera-Maisutzan ihardun zuen zuzendaritzen bi katedra haueta-tik isuritzen ziola Norberto Almandozek musika sona Sevillako gizarteari. Nagusienak ziren, bakarrak ez baziren ere.

Musika erakunde sebilar guztiek kontatzen zuten berekin era batera edo bestera: musikagile, antolatzaile, aholkulari, bertako lekuko, kritikari, lehiaketa desberdinetako lehendakari edo epaimahaikide, etab.

Ez gaitu harritu behar beraz, bere bizitzan kontzertu edo musika emanaldien benetazko bultzatzaile bezala ihardun izanak.

Norberto Almandoz ez zen inongo musika-artistiko agentziako gerentea. Halabaina berauekin etengabeko harremanak zituen, hainbat konpromezu artistikoren bitartekari lanetan.

ABCko musika kritikari bezala egiten zuen lanean beti aurkitzen dira Sociedad Sevillana de Conciertos delakoari zuzendutako adore hitzak, sebilar zalegoari eskainitako zerbitzu baliagarrien historial distiratsu batekin apainduak. Baina bere garai motelak ere azpimarratzen ditu eta baita Donostiako Kultura Musikaleko Elkartea edo Oviedoko Sociedad Filarmonicaren iharduera aztertzera gonbidatu ere, datu fidagarri eta anitz esanguratsuekin.

Antzeko kontsiderazioak, suspergarriak beti ere, aurkitzen ditugu Kontserbatorioak, Juventudes Musica-

## Promotor de conciertos.

Puede decirse que la dirección del Conservatorio y la dirección ejercida desde el Magisterio de Capilla eran las dos cátedras, desde donde Norberto Almandoz irradiaba prestigio musical a la sociedad sevillana. Eran las principales. No las únicas.

Todas las entidades musicales hispalenses contaban con él de alguna manera: como compositor, organizador, asesor, testigo asistente, crítico, presidente o componente de tribunales de concursos, etc.

No debe por tanto sorprender que en su vida se hubiera ejercitado como auténtico promotor de conciertos o audiciones musicales.

Norberto Almandoz no era el gerente de ninguna agencia artístico-musical. Pero sí estaba relacionado constantemente con ellas, como intermediario de innumerables compromisos artísticos.

En su tarea de crítico musical del ABC hay siempre palabras de ánimo para la Sociedad Sevillana de Conciertos, aureolada por un brillante historial de inapreciables servicios a los aficionados sevillanos. Pero también recalca sus horas bajas, invitándole a examinar la actividad de la Asociación de Cultura Musical de San Sebastián o a la Sociedad Filarmónica de Oviedo con datos fehacientes, altamente significativos.

Similares apreciaciones, siempre alentadoras, expone en sus recensiones sobre recitales musicales orga-



Norberto Almandozen eskuin aldean Mariano Mota, Sevilla Unibertsitateko Zuzendaria, dago eta Mongelli, Eslavaren Misereko baxua. Bere ezkerrean Inazio Maria Lojendio, Sevillan Deretxo Politikoko Katedratikoa, eta Casarechi, Eslavaren Misereko tenorea. Eta gainontzekoek Donostiako Easo abesbatzako partaideak. (1943).

A la derecha de Norberto Almandoz Mariano Mota, Rector de la Universidad de Sevilla y Mongelli, bajo del Miserere de Eslava. A su izquierda Ignacio Mª Lojendio, Catedrático de Derecho en Sevilla y Casarechi, tenor del Miserere de Eslava. El resto cantores del Coro Easo, de San Sebastián. (1943).

les, Unibertsitateak, etabarrek, antolatutako musika emanaldiei buruz argitaratzen dituen iritzietan. Sarri askotan bere hitz apalen atzean, antolakuntzaren meritu pertsonala ezkutatzen zen.

Norberto Almandozen artxibategian jasotzen den eskutitz multzoan, berari zuzendutako eskutitz mordo bat dago, zenbait kontzertutarako bere bitartekaritza eskatuz. Batzuk agentzi artistikoenak dira eta beste batzuk, interprete independienteenak, estatukoak eta atzerritarrak.

Sail berezia osatzen dute abesbatz euskaldunen eskutitzek, Norberto Almandoz bitartekari bakartzat jotzen baitzuten Andaluzia guztira eta batipat Sevillara hurbiltzeko zuten helburua lortzeko.

Hor daude besteak beste, Orfeoi Donostiarraren konpromezuei buruz Sekundino Esnaola eta Juan Gorostidik idatzitako eskutitzak; Bitor Zubizarretak Bilboko Schola Cantorum-i buruz, Juan Jose Larrinaga eta ABAO; Remigio Mugika eta Martin Lipuzkoa eta Iru:eako Orfeoia; Ramon Oiarzabal eta Bergarako Orfeoia; Enrike Laborde eta M Teresa Hernndez eta Maitea Abesbatza; Juan Jose Agirretxe eta Jose Luis Olaizola eta Easo Abesbatza; Luis Morondo eta

nizados por el Conservatorio, Juventudes Musicales, la Universidad, etc... Muchas veces tras la sencillez de sus palabras se escondía el mérito personal de la organización.

En el fondo epistolar, que se conserva en el archivo de Norberto Almandoz, hay multitud de cartas dirigidas a él, solicitando su mediación para determinados conciertos. Unas son de agencias artísticas y otras de intérpretes independientes, nacionales y extranjeros.

Constituyen un sector especial las cartas de los coros vascos, que veían en Norberto Almandoz un enlace único, para sus objetivos de acercamiento a Andalucía en general y a Sevilla en particular.

Ahí están las cartas de Secundino Esnaola y Juan Gorostidi sobre compromisos del Orfeón Donostiarra; las de Víctor Zubizarreta sobre la Schola Cantorum de Bilbao; Juan José Larrinaga y la ABAO; Remigio Múgica y Martín Lipúzcoa y el Orfeón Pamplonés; Ramón Oyarzabal y el Orfeón Bergarés; Enrique Laborde y Mª Teresa Hernández y el Coro Maitea; Juan José Aguirreche y Luis Olaizola y el Coro Easo; Luis Morondo y José Luis Eslava y la

Jose Luis Eslava eta Iruñeako Ganbara Abesbatza; Juan Eraso eta Elizondoko Abesbatza, etab.

Gehiegi zehaztu gabe, baina ezin dugu aipatu gabe utzi, organista, pianista, klabezinista, abeslari, orkestra zuzendari, etab.., talde baten eskutitz multzo haundi bat badagoela.

Eta guztiek espero zutela, detailerik txikienetan ere, Almandozengandik bitartekaritza on bat jasotzea. Halaber, ugariak dira kontzertuak ospatutakoan, ordainetan jasotzen dituen eskerronezko eskutitzak.

Esatekoa da baita, anitz direla, musika Argitaletxe, Kongresu desberdinetako musika Batzorde, Elizbarrutiko Kuria, Enbaxada, Anaidi andaluzak, etaborretatik jasotako gutunak, guztiek ere, honen lankidetza edo aholkularitza eskatuz.

Besteak beste, harreman berezia izan zuen Agencia Internacional Figuerido-k Almandozekin, elkarteko artistak eskaintzen baitzizkion, Donostian César Figueridok zuzentzen zuen agentzia honetatik.

Halabaina, konzertuen zeharkako antolakuntzan bazen ere, lan harremanik estuenak Franzisko Sarobe opera enpresariarekin izan zituen.

Franzisko Sarobe (Zarautz 1888-1966) lanbidez medikua zen. Oso onartua zen herritar guztien artean eta hori horrela izanik eta bere lurrean lanean egindako berrogeita hamar urteengatik eskerrona adierazteko ikaragarrizko omenaldia eskaini zion bere jaioterriak. Norberto Almandozek gizon honetaz hitzegiterakoan, nabarmentzen du, maiz aurkitzen direla medikuntzaren gremio honetan alegia, musika zaletasun handikoak, beren baitan gozamen espiritual bezala lantzen dutenak. Ezin esan ordea, beste hainbeste Hipocratesen zientziaren inguruan musikoei buruz.

Franzisko Sarobe aparteko kasu bat zen, bere aurreneko lanbidearekin batera, Sevillan eta Donostiako Musika Hamabostaldian garatu zuen bigarren lanbidea ere bazuen, hots, opera enpresarioarena. 1940ean etorri zen Sevillako hiriburura eta Norberto Almandoz izan zen honen nortasuna bertako Udaletxean sartu zuena.

Hogei urte luzez opera denboraldiak antolatu izana zor dio Sevillak Franzisko Saroberi, emanaldi hauek



Imposición de la insignia del Coro Easo a Norberto Almandoz, tras nombrarle Socio de Honor de la entidad.

Agrupación Coral de Cámara de Pamplona; Juan Eraso y la Agrupación Coral de Elizondo, etc. etc...

Sin concretar más, sí debemos decir que existe un gran fondo de cartas de una pléyade de organistas, pianistas; clavecinistas, cantantes, directores de orquesta, etc

Todos esperan de él una buena gestión a su favor, hasta en los detalles más nimios. Y en justa correspondencia son muchas las cartas de agradecimiento tras los conciertos celebrados.

También abundan las cartas de Editoriales musicales, Comisiones musicales de Congresos varios, Curias Diocesanas, Embajadas, Hermandades andaluzas, etc., todas solicitando su colaboración o asesoramiento.

Especial relación tuvo con él la Agencia Internacional Figuerido, que le ofertaba sus artistas asociados, agencia domiciliada en San Sebastián y dirigida por César Figuerido.

Sin embargo con quien más estrechamente trabajó en la organización más o menos directa de conciertos, fue con Francisco Sarobe, empresario de ópera.

Francisco Sarobe (Zarauz 1888-1966) era médico de profesión. Alcanzó una aceptación popularísima,



Norberto Almandozen bitartekotzaz, Sevillan abestu zuen Donostiako Maitea Abesbatza. Erakunde honetako Ohorezko Bazkide izendatu zuten.

Coro Maitea de San Sebastián, que intervino en Sevilla por mediación de Norberto Almandoz, a quien nombraron Socio de Honor de la entidad.

Espainia mailan Bartzelonan bakarrik eratzen ziren garaian. Hasiera hasieratik aurkitu zuen enpresari zarauztarrak erditzalean lanean ziharduen lankide garrantzitsu bat Norberto Almandozengan. Denboraldia Bazko Larunbatean hasten zenez gero, bien artean erabaki zuten, egun batzu lehenago Eslavaren *Misereren* interpretazioan parte hartu behar zuen tenore eta baxu protagonista, urtero aldez aurretik kontratatzea. Aipatu dugun *Miserere*, Norberto Almandozek berak zuzendu zuen 1940tik 1945era bitarte.

Baina hala ere, Kontserbatorioan izan zuen Norberto Almandozek kontzertu eragile bezala ardurarik handiena. Bere agintaldi guztian (1936-1959) berak kontratatzen zituen interpreteak, etenik gabeko ihardueran. Emanaldi aretoaren lekua zela eta, Kontserbatorioan piano edo ganbara musika emanaldiak antolatzen ziren. Halabaina, zaletuek eta ikasleek batipat hitzaldi, tekla, soka, metal, konjunto, etabarren interpretazio ugari entzuteko aukera goza ahal izan zuten.

Norberto Almandozek egiten zituen gorapen literario garbienen artean, beti zegoen publikoki eskerrak

lo que le valió un profundo homenaje de su pueblo natal, por los cincuenta años de ejercicio en su propia tierra. Norberto Almandoz, al hablar de él, destaca cómo es frecuente encontrar en el gremio de la medicina grandes aficionados a la música, que incluso la cultivaban como deleite espiritual. Acaso no se podría decir otro tanto de los músicos acerca de la ciencia de Hipócrates.

Francisco Sarobe era un caso excepcional, puesto que junto a su primera profesión, ostentaba el título de empresario de ópera, segunda profesión que desarrolló en Sevilla y en la Quincena Musical Donostiarra. Vino por primera vez a la capital hispalense en 1940 y Norberto Almandoz hizo de introductor de su personalidad en el Ayuntamiento sevillano.

Sevilla debe a Francisco Sarobe más de 20 años de temporadas de ópera, en una época en que solamente en Barcelona se gozaba de esta organización en toda España. Desde el primer momento el empresario zarauztarra encontró en Norberto Almandoz un importante colaborador, que trabajaba desde la penumbra. Puesto que la temporada se iniciaba el Sábado de Gloria, ambos decidieron la



Luis Morondo eta Iruñeako "Agrupación Coral de Cámara" Norberto Almandozen inguruan; 1961ean Sevillan eskainitako kontzertuaren bitartekaria.

Luis Morondo y su Agrupación Coral de Cámara de Pamplona, rodeando a Norberto Almandoz, intermediario de su concierto en Sevilla en 1961.

ematearena, kontzertuen antolakuntzan beren ahaleginak egiten zituzten guzti haientzat. Bera ordea, erditzaletik lanean ziharduen aparteko kasua zen, etekin guztiz positiboak lortzen zituen eta bere lanak, errekonozimendu handienen hartzaile ziren.




contratación adelantada cada año del tenor y el bajo protagonista, que habían de intervenir en la interpretación del Miserere de Eslava días antes, de 1940 a 1945 dirigido por el mismo Norberto Almandoz.

Pero sin duda donde Norberto Almandoz tuvo la mayor responsabilidad como promotor de conciertos fue en el Conservatorio. Durante todo su mandato (1936-1959) él mismo contrataba a los intérpretes y mantuvo una línea permanente de actividad. Lógicamente en el Conservatorio se trataba de recitales de piano o música de cámara, por la capacidad del salón de audiciones. Pero los aficionados y especialmente los alumnos gozaron de la oportunidad de escuchar a lo más granado de los intérpretes de tecla, cuerda, metales, conjuntos, conferencias, etc.

Entre las netas ponderaciones literarias expresadas por Norberto Almandoz estaba siempre la del agradecimiento público para quienes dedicaban sus esfuerzos a la organización de conciertos. El fue un caso excepcional de trabajar desde el anonimato, pero con resultados altamente positivos y acreedores del mayor reconocimiento.



DIARIO ILUSTRADO DE INFORMACION GENERAL — ABC — DIARIO ILUSTRADO DE INFORMACION GENERAL

REDACCION Y ADMINISTRACION: PRADO DE SAN SEBASTIAN. SUSCRIPCIONES Y ANUNCIOS: VELAZQUEZ, 12. SEVILLA.

**EL SEVILLANISMO DE JOAQUIN TURINA**

plo metropolitano. Prosiguiendo la ruta de la estrella del sevillanismo del artista, vemos a su inquieta musa posarse sobre "Rima de Bécquer", "Cuarteto" sobre las notas de la guitarra y "Tres danzas andaluzas" para piano, que preparan el advenimiento de la obra que cimentó el prestigio de Turina: "La procesión del Rocío", poema sinfónico para orquesta. Es, sin duda alguna, esta composición la que más poderosamente influyó en la carrera del compositor. La "Kodak" de Turina recogió con seductores detalles las variadas incidencias del

**MUSICALES**

**AMADEO VIVES, MUSICO Y LITERATO**

El maestro Amadeo Vives

campo del arte regional, recordándole, en interesante carta, los albores de su carrera como compositor de canciones catalanas y religiosas; sus entusiasmos por el género coral, escribiendo el sentido "L'emigrant", "Fadrí del Canigó" y otras.

Pero la zarzuela, con sus encantos, sedujo irresistiblemente al compositor catalán, y en tiempos en que el género contaba con músicos de la categoría de Bretón, Chapí, Caballero y Chueca, Vives hacía sus primeras armas con obras que pronto llamaron la atención. Su nombre había de consagrarse como uno de los cultivadores más prestigiosos. De su fantasía brotaron gran número de obras que han enriquecido valiosamente el género. Conservó aun en el apogeo de su carrera zarzuelística, gran afecto a sus primitivas aficiones corales regionales. En los últimos años de su vida escribió para el "Orfeo Català" magníficos coros, como la "Oda a la mar lejana", "Processó en la muntanya", etcétera, obras de gran originalidad, con las que renovaba la técnica y el estilo de la producción coral, en que Cataluña podía gloriarse de poseer maestros de la categoría de un Nicolau y un Millet.

Si la música nacional le es deudora de las óperas "Artús", "Roda d'Urtae", "Colomba" y alguna otra, todas ellas se han esfumado del repertorio quedando apenas vestigio de ellas.

Faltóle preparación y el aliento de Morera y Usandizaga para abordar con fortuna la espinosa modalidad operística.

La de la zarzuela fué la que más se adaptó a su temperamento y disposiciones musicales. Estas se explayaron ampliamente en extenso bagaje, no todo de la mejor ley, del que pueden seleccionarse obras dignas de verdadero artista, prestigiando al género.

Es innegable que su [illegible]

Espíritu inquieto, lector asiduo de la "Biblia", del "Kempis", del "Quijote" y de otras muchísimas obras de todos los géneros, su [illegible] en artículos, críticas y libros.

Probó fortuna en el teatro con el drama "Yo no sabía que el mundo era así", estrenado en Barcelona.

Parecía convencerse de que la zarzuela era el género más adaptable a sus cualidades temperamentales.

Su pluma ágil y cáustica se complacía en relatos de [illegible] y fina sátira.

En "Sofía", al lado de fantasías más o menos críticas de "Parsifal", "Rigoletto", Strauss y su "Quijote", etcétera, puede el lector [illegible] páginas, como la tertulia de los directores de orquesta Bretón, Jiménez, Arbós, Pérez Casas y Villa.

Vives ha captado certeramente el carácter de los personajes, describiendo con ingeniosa psicología la [illegible] de la [illegible] del autor de "La Dolores", [illegible] de Jiménez, el [illegible] de Arbós, la [illegible] de Pérez Casas y la [illegible] de Villa [illegible]

**LA PRIMERA COMUNION DE BERLIOZ**

El generoso y caritativo rasgo de cuantas personas que han costeado el traje de la primera comunión y la bota ortopédica a una niña sevillana, cuyo padre, parado y sin trabajo, cifraba en ese día su mayor ilusión, nos ha emocionado hondamente. Hay choques psíquicos capaces de parar una locomotora y perturbar el organismo de una persona. ¡Aún hay almas en las que late la chispa de encendida caridad! ¡Día de primera comunión! ¡Efemérides imborrable que brilla rutilante en el mapa de toda una vida! ¡Día anhelantemente esperado!

No podemos menos de recordar al [illegible] inquieto [illegible] Héctor Berlioz, el cerebro más vigoroso de Francia, como le llamó Liszt, que en las postrimerías de su vida, amargado, incomprendido, lo rememoraba con añoranza como escribe en sus famosas «Memorias».

Norberto Almandozek Sevillako ABCn 1935tik 1970era argitaratu zituen bi mila izenburuetatik hartutako hiru.

## ABCko kritikaria, Sevillako argitalpenean (1935-1970).

Ikaragarrizko garrantzia du Norberto Almandozen beste alderdiak, hots, ABCko kritikaria, Sevillako edizioan (1935-1970), eta areagotuz doana bere edukina aztertzen den heinean.

"Kritiko" hitza oso mugatua da, izan ere, izen hau musika lanak eta hauen interpretazioa balioztatzea enkargatzen denari soilik emanen baitzaio.

Aldiz, Norberto Almandozen musikalan literarioa askotzaz ere zabalagoa da, bere lanetariko asko eta asko musika, musikagile eta musikarekin erlazionatutako hainbat pertsonei buruz egindako azterketa sakonak direlako. Beraz, zehaztasun handiagoz mintzatuko ginateke, Norberto Almandoz kritikoa ez baina musikologoa zela esango bagenu.

## Crítico del ABC, edición de Sevilla (1935-1970).

La faceta de Norberto Almandoz, crítico de ABC, edición de Sevilla (1935-1970), es de una importancia capital, que aumenta según se analice su contenido.

El vocablo "crítico" es muy restringido, puesto que hace referencia exclusivamente al encargado de valorar las obras musicales y su interpretación.

En cambio la obra literario musical de Norberto Almandoz es de mucho mayor amplitud, puesto que gran parte de sus trabajos constituyen verdaderos estudios sobre la música, los músicos y otros perso-

# ARCHIVO HISPALENSE

REVISTA HISTÓRICA, LITERARIA Y ARTÍSTICA

MANUEL DE FALLA

Se ha cumplido el décimo aniversario de la muerte de Manuel de Falla. El mundo musical ha conmemorado la efemérides con homenajes y conciertos dedicados a sus obras. Sevilla nada ha hecho en su memoria; ha dejado pasar la fecha sin un recuerdo para el egregio músico, cuyo nombre está vinculado a la ciudad por múltiples lazos artísticos, rememoradores de brillantes episodios, de áureas gestas en los fastos musicales de la noble *Hispalis*.

MUSICA Y MUSICOS NORTEAMERICANOS EN SEVILLA

Desde hace unos lustros, la música y los músicos norteamericanos se abren camino en el campo concertístico español.

Después de Mac-Dowell, conocido hace años por sus obras pianísticas, George Gershwin es, indiscutiblemente, el compositor cuya producción figura más intensamente en nuestros programas. Su ópera *Porgy and Bess* ha merecido los honores de varias representaciones en el Liceo de Barcelona. Por la Sociedad Sevillana de Conciertos han desfilado varios representantes del arte americano.

INTERMEDIO MUSICAL

MARIANO - CONCEPCIONISTA

«Tenemos padre, pero nos hace falta una madre», escribía, refiriéndose a la Virgen, una relevante personalidad protestante. Frase elocuente ésta, reveladora de la necesidad sentida de un amor, de un cariño maternal; reveladora también de la desamparada orfandad en que vive esta secta, rama desgajada del Catolicismo.

Este inmenso vacío del amor maternal no se llena ni se remedia con fórmulas, aun las más sabias, que los fundadores de religiones inscriban en su sistema doctrinal.

Otros títulos de los publicados en "Archivo Hispalense".

Eta ez hori bakarrik, ohituraz ABCko kritikaria bezala ezagutzen da, bere lanik oparoenak "Archivo Hispalense", "Calvario", "Cruz de Guía", argitalpen sebilarretan, "Tesoro Sacro Musical" aldizkari madrildarrean, "Katazka" donostiarrean, etabarretan egin zituenean. Baina, egia da baita diferentzia handiarekin, bere idaztiak ABCn agertzen zirela gehienbat.

Norberto Almandozen nortasunaren puntu honetara heldutakoan, komenigarri deritzogu konpositorea eta musikologoa parekatzea.

Ez dugu ahaztu behar bere gazte denboran ahalegin guztia egin zuela, konpositore bezala etekinik handiena erdiesteko, 30. hamarkada arte beti goraka doan lanari esker, Euskal Herriko nabarmenena izatera heldu zen. Honen ostean nolabaiteko beherakada etorri zen, ez kalitate aldetik kopuru aldetik baizik, musikologo epealdiari ekiten zion bitartean. Musikologo alderdi honek etenik gabeko ihardueren gorakada esperimentatu zuen heriotzera arte.

Nabarmenki jaitsi zen aldiz konpositore bezala bere ekoizpena, erabat alde batera ez bazuen utzi ere, bizitzako azken urteak arte, bere egoera psikikoak ez baitzion horretarako laguntzen: "Ez dut konposatzen. Oso urduri jartzen naiz eta ez zaio komeni nere osasunari".

Halaber ez zion uko egin musikari buruz idazteari. Medikuak 1970ean kontzertuetara joatea debekatutakoan, literatur-musikako azterketatxoak idazten jarraitu zuen eta ABCk hil baino egun batzuk lehenago arte argitaratu zizkion.

Musikologia ote konpositore "agortuen" babesleku?

Hariari helduz, Manuel Palau (Alfara del Patriarca-Valencia 1893-1967) honela mintzatzen da Norberto Almandozi bidalitako gutun batean: "...Musikologoa niretzat (atsegin zaidan kasuren bat kenduta) irripar bat bera ere sorrarazten ez didan jaun bat da. Horietariko gehienek Musikaren elementu desberdinak erakusapal bateko objetu kontsideratzen dituzte. Ikasi, aztertu eta noizbehinka deskubritzen dute (oso gutxitan, ordea!), baina *gehienbatean ez dute Musika maite*".

Manuel Palauk umorez "kasu atseginen artean" sartzen zuen Norberto Almandoz.



najes relacionados con la música. Podríamos, pues, con mayor rigor hablar del Norberto Almandoz musicólogo, mejor que crítico.

Además habitualmente se le nombra, como crítico del ABC, cuando en realidad escribió profusamente en las publicaciones sevillanas "Archivo Hispalense", "Calvario", "Cruz de Guía" , en la revista madrileña "Tesoro Sacro Musical", en la donostiarra "Katazka", etc. Bien es verdad que con notable diferencia sus escritos aparecían mayoritariamente en ABC.

Llegados a este punto de la personalidad de Norberto Almandoz, nos parece conveniente cotejar al compositor con el musicólogo.

No debemos olvidar que en su juventud puso toda su energía en el mayor rendimiento como compositor, hasta llegar a ser uno de los más destacados del país vasco, gracias a una producción en línea ascendente hasta la década de los años 30. Después en su vida se dió una línea descendente, en cantidad más que en calidad, mientras se iniciaba




Katazka, revista vasca en la que también contribuyó literariamente.

Bizitzako azken urteetan konpositore bezala nahikoa ez egindakoaren ardura sentitzen zuen Norberto Almandozek, horren prestakuntzan anitz ahalegin egin zituenean. Ez diogu garrantzi gehiago eman nahi behin eta berrizko adierazpen honi, zahartzaroko barnekezkari atxeki baizik.

Baina badago zerbait datu harrigarri bezala azpimarratuko duguna, zera alegia, Norberto Almandozek bere musika lanen bilduma egiterakoan ez zuela ardura larregirik hartu. Behin betiko katalogoa egitea ur handitan sartzea da, edonondik baitzetozkion eskari eta enkarguak eta uste dugu bere partitura zenbait leku ezezagun eta ustekabekoetan barreiaturik daudela.

Literatur-musikako lanekin zeharo alderantziz jokatu zuen Norberto Almandozek. Hamar aleetan ABCn egindako lanak bildu zituen, 1887 egunkari orrialde guztira, lan bakoitzeko orrialde batekin. Eta hauei lehendik aipatutako beste argitalpenetako lankidetzak eransten badizkiegu, esan dezakegu orotara bi milatik gora direla idatzitako literatur-musika lanak. Egia da baita noizean behin lan hauek argitalpen desberdinetan errepikatu eginen direla, ABC bertan ere, edo bateko datuak hartu bestea osatzeko. Baina honek guztiak ez du gutxiesten pittin bat bera ere, estudio hauetan eransten duen musika datu ondasun aberatsa.

Argitalpen honen gehigarrietan ABCn argitaraturiko lanen zerrenda osoa agertzen bada ere, edukiaren laburpen bat aurreratzen dugu hemen, ez ordea, funtzesko banaketa egin baino lehen: KONTZERTUEI BURUZKO AZTERKETA ETA IRITZI KRITIKOAK.

AZTERKETAK gaiez-gai era honetara sailkatuak gera daitezke:

a) Konpositoreei buruz oroar eta bere lanen bati buruz bereziki, guztira 400 lan inguru. Hona hemen batzuk:
   Bach, padre inmortal de futuras generaciones"
   "La Primera Comunión de Berlioz"
   "Bizet y los Reyes Magos"
   "Chopin en Mallorca"
   "El Miserere de Eslava en Jerez"

su etapa de musicólogo. Esta experimentó un permanente aumento de actividad hasta su muerte.

Disminuyó sensiblemente su producción como compositor, aunque no la dejó por completo hasta los últimos años de su vida, por la situación psíquica en que se encontraba: "No compongo. Me excito mucho y va contra mi salud."

En cambio no cesó de escribir sobre música. En 1970 ante la prohibición de su facultativo para asistir a conciertos, continuó redactando sus miniestudios literario musicales, que ABC le publicó hasta pocos días antes de su muerte.

¿Es la musicología el refugio de los compositores "agotados"?

A este propósito Manuel Palau (Alfara del Patriarca-Valencia1893-1967) en una de sus muchas cartas a Norberto Almandoz, le decía: "... Para mí el musicólogo (salvo simpáticas excepciones) es un señor que casi nunca me hace sonreir. La mayor parte de ellos consideran los diferentes elementos de la Música como objetos de vitrina. Estudian, reflexionan, descubren a veces (¡ay! muy pocas), pero *no aman la Música en su mayor parte."*

Manuel Palau incluía con humor a Norberto Almandoz en las "simpáticas excepciones".

En los últimos años de su vida Norberto Almandoz se sintió responsable de no haber rendido suficientemente como compositor, cuando tantos esfuerzos había desarrollado en su preparación. No pretendemos dar importancia a esta manifestación reiterada, sino atribuirla más bien a un escrúpulo senil.

Sin embargo sí destacaremos como dato extraño, que en la recopilación de sus obras musicales Norberto Almandoz no desarrolló un empeño esmerado. Realizar su catálogo definitivo es muy aventurado, puesto que las peticiones y encargos le llovían por doquier y consideramos que existen dispersas partituras suyas en lugares desconocidos e insospechados.

Con sus trabajos literario musicales Norberto Almandoz obró radicalmente al revés. Coleccionó en diez tomos sus colaboraciones en ABC, con un total de 1887 páginas del periódico, a página por trabajo.

b) Musika eta pertsonaia ospetsuak, izenburu hauekin:
"Retablo Alfonsino" (Alfonso X.a Jakituna)
"La epopeya de los Reyes Católicos, cantada por músicos y poetas"
"Carlos V y la música"
"La música y los Duques de Alba"
"La Infanta doña Isabel de Borbón y la música"
"La música en el Bicentenario del nacimiento de Napoleón"

c) Musika eta literatoak eta artista zenbait, izenburu garrantzitsuenak, besteak beste, ondoko hauek izan daitezkeelarik:
"Lope de Vega en la música"
"Recital de música del tiempo Shakespeare"
"Amado Nervo, crítiko musical"
"Juan Ramón Jiménez y la música"
"Concierto-homenaje a Juan Ramón Jiménez"
"Jean Cocteau y la música"
"Menendez y Pelayo y la música"
"Don Ramón Menendez Pidal y el folflore español"
"Homenaje a Velazquez"
"Homenaje a Martínez Montañés. La parte musical"

d) Musika eta gai erlijiosoa, ehun izenburu ingururekin. Hona hemen horietariko batzuk:
"Maria en el reino de la música"
"Santa Cecilia y la música"
"Santo Tomás de Aquino y la música"
"San Fernando y la música"
"San Isidoro y la música"
"Santa Teresa eta musika"
"San Ignacio, La Compañia de Jesús, la música"
"San Francisco de Borja, IV Duque de Gandía, compositor de música"
"San Antonio María Claret y la música"
"El Beato Pio X y la música religiosa"
"Cincuentenario del "Motu proprio", del Beato Pio X"

e) Zenbait gai ehun izenburu ingururekin. Horietariko batzuk:
"España en la música universal"
"Panorama filarmónico español"
"Nuevas sinfonías españolas"
"Asamblea de compositores e intérpretes españoles"



Si a estas añadimos las de sus colaboraciones en las otras publicaciones anteriormente citadas, digamos globalmente que sus trabajos literario-musicales pasan de dos millares. Bien es verdad que en ocasiones estos trabajos se repiten en las distintas publicaciones o en el mismo ABC o aprovecha los datos de uno, para completar otro. Pero esto no empequeñece lo más mínimo el riquísimo fondo de datos musicales que aporta en estos estudios.
Aunque entre los Apéndices de esta publicación figura el índice completo de los trabajos publicados en ABC, adelantamos aquí un resumen de su contenido, no sin antes establecer la división fundamental: ESTUDIOS y JUICIOS CRITICOS SOBRE CONCIERTOS.

Los ESTUDIOS pueden quedar englobados por materias de esta forma;

a) Sobre compositores y alguna de sus obras en particular, con un total que se aproxima a los 400 trabajos. He aquí algunos:
Bach, padre inmortal de futuras generaciones
La Primera Comunión de Berlioz
Bizet y los Reyes Magos
Chopin en Mallorca
El Miserere de Eslava en Jerez

b) La música y personajes ilustres, cuyos títulos son:
Retablo Alfonsino (Alfonso X el Sabio)
La epopeya de los Reyes Católicos, cantada por músicos y poetas Carlos V y la música
La música y los Duques de Alba
La Infanta doña Isabel de Borbón y la música
La música en el "Bicentenario del nacimiento de Napoleón"

c) La música y literatos y artistas varios, cuyos títulos más importantes, además de otros, pueden ser:
Lope de Vega en la música
Recital de música del tiempo de Shakespeare
Amado Nervo, crítico musical
Juan Ramón Jiménez y la música
Concierto-homenaje a Juan Ramón Jiménez
Jean Cocteau y la música
Menéndez y Pelayo y la música
Don Ramón Menéndez Pidal y el folklore musical
Homenaje a Velázquez
Homenaje a Martínez Montañés. La parte musical

"Relaciones musicales entre España y Bélgica"
"España y la música francesa"

f) Nota soilak, nota laburrak, kontrapunto desberdin, musikaren xehetasun jakingarri guztiak sartzen dituen saila.

KONTZERTUEI BURUZKO IRITZI KRITIKOEk, bere literatur-musikalaren lan erdia baino gehiago osatzen dute, eta hauek dira ABCko lankidetzaren abiapuntu.

Izatez berak ez zuen kazetari ikasketarik, ezta horrelako agiririk ere. Baina egunkariak horretan onartu zuen, berez jadanik zuen ospeagatik. Eta denborarekin Kazetarien Erregistro Ofizialean inskribatua izan zen lankidetzako karnetarekin.

Honen aurreko kritikaria Eduardo Torres izan zen, Katedraleko Kapera-Maisua. Beraz, hainbat musika lanetan bere lankide izan zen Norberto Almandozek ordezkatu zuen bi lekuetan: Kapera-Maisu lanetan eta ABCko musika kritikaritzan.

Eduardo Torres 1934ko abenduan hil zen. Eta Norberto Almandozek 1935eko urtarrilaren 1ean idatzi zuen lehen kritika A. izenpean. Bertan, sarrera gisa, ondoko lerro hauek idatzi zituen: "Joan den igandean ospatu zen kontzertuaren kritikari heldu aurretik, kronista hau, zuzentasun legez, beharturik dago, hilostean zoritxarrez, mirespen omenaldi bat Eduardo Torres (goian bego), maisu jakitun zenaren alde eskaintzea, Sevillan egindako hainbat musika ekimenen artean, goraipatzekoa baita koloma hauetan bertan konpetentzi eta nortasun handiko kritikari bezala burutu zuen lana.

Sevillak eskerronezko zor handia dauka berekin, sebilar kultur musikaren alde egin zuen lan bikainagatik, modurik duin eta jatorrenean ordaindu behar duena.

Egin dezagun otoitz bero bat bere animaren alde eta izan dezagun mirespen sutsu eta adeitsu bat bere izenaren alde. Hartu beza Jaunak zorioneko bere etxean.."

Norberto Almandozek kontzertuetako kritikak A. lotsatiarekin izenpetzen jarraitu zuen, baina 1937ko martxoaren 16az geroztik N. A. sinatzen hasi zen

d) La música y el tema religioso, con cerca de cien títulos. He aquí algunos de ellos:
María en el reino de la música
Santa Cecilia y la música
Santo Tomás de Aquino y la música
San Fernando y la música
San Isidoro y la música
Santa Teresa y la música
San Ignacio, la Compañia de Jesús, la música
San Francisco de Borja, IV Duque de Gandía, compositor de música
San Antonio María Claret y la música
El Beato Pio X y la música religiosa
Cincuentenario del "Motu proprio", del Beato Pio X

e) Temas varios con cerca de cien titulos. Algunos de ellos:
España en la música universal
Panorama filarmónico español
Nuevas sinfonías españolas
Asamblea de compositores e intérpretes españoles.
Relaciones musicales entre España y Bélgica.
España y la música francesa.

f) Notas sueltas, notas breves, contrapuntos variados, sección en la que incluye toda clase de detalles musicales noticiables.

Los JUICIOS CRITICOS SOBRE CONCIERTOS, que constituyen más de la mitad de su trabajo literario-musical, son el punto de arranque de sus colaboraciones en ABC.

De hecho él no tenía estudios de periodista, ni carnet de tal. Pero el periódico le aceptó como tal por el prestigio de que ya gozaba.

En 1943 fue inscrito en el Registro Oficial de Periodistas con carnet de colaborador.

El anterior crítico había sido Eduardo Torres, Maestro de Capilla de la Catedral. Por tanto Norberto Almandoz, compañero suyo en muchas tareas musicales,le sucedió en ambos puestos: el del Magisterio de Capilla y el del crítico musical de ABC.

Eduardo Torres falleció en diciembre de 1934. Norberto Almandoz con la firma de A. escribió su primera crítica el 1 de enero de 1935. En ella, a

eta egun gutxitara bere lehen azterlana argitaratzen zuen "Toms Luis de Victoria y su Oficio de Semana Santa" non bere izen osoa inprimatzen zuen. Hurrengo kolaborazio lanetan, kontzertuen kritiketan N. A. sinadura mantendu zuen eta izen osoa azterlanetan.

Hala ere, 1940ean opera emanaldiei kritika egiten hasi zenean, berriro sinadura lotsatira jo zuen, oraingoan X bat, baina aldatzen jarraitu zuen T. O., M. C., Orfeo, Bemol, etabar, beste musika generoetan bere izen osoa mantentzen zuen bitartean.

Bere kritiken ikuspegi orokorrean balore handiko bi alderdi azpimarratu nahi genituzke: Lehenik eta behin, Sevillatik desfilatu duten interpretei buruz egindako datu bilketa ikaragarria eta kritika bakoitzarekin doan azterlan txikia; eta bigarrenik, Norberto Almandozek hautatutako kritika estiloa, genero bereko edonorentzat eredu bezala balio lezakeena.

Alderdi honi dagokionean, 1970eko abenduaren 7an Norberto Almandoz hil zenean, honela idatzi zuen El Correo de Andaluciako musika kritikaria zen Julio García Casasek abenduaren 10ean:

"...Askotan hitzegin nuen Norberto j.arekin bai musika eta bai giza gaiaz ere. Eta guztietan, ondorio garbi bat ateratzen nuen: entziklopedikoa zirudien jakinduri zoragarria zuela. Ez zegoen daturik berak ez zekienik, ezta berarentzat argitaratu gabeko musikarik; musikoa zen hitzaren zentzu zabal eta jatorrenean esanda, inolako mozorro, azpikeria, edota alferrikako handikeriarik gabekoa, baina estetika eta musikaren historia inor ez bezala ezagutzen zituena eta baloratzeko orduan gutxirengan aurki daitekeen ahalmena. Norberto j.arekin hizketan ihardutea beti zen esperientzi eta jakintza handiko ikasgai bikaina; garaiko musika berrikuntza guztiei beti adi, ez zegoen orrialderik maisu sakontasunez eta pentsamentu fintasunez balioztatzen ez zuenik, ezagutzen ez zuen konpositore garaikiderik edo xehetasunik ez zegoen bezalaxe.

Beregandik ikasi genuen kritikaren balorapena egitearen lanbide neketsua, naturalitate osoarekin (zenbat zorioneko aipamen ABC egunkarian!) bere lumatik irteten zen kritika; beregandik ikasi genuen musikako terminoekin hitzegiten, eta beste batzuetan begirunezko eta giza isiltasunarekin mutu gelditzen. "Zeren manera de introducción, puso las siguientes líneas iniciales:

"Antes de pasar a la labor crítica del concierto celebrado el pasado domingo, el cronista se ve obligado, por una estricta justicia, a rendir, por desgracia póstumamente, un homenaje de admiración a la memoria del ilustre maestro don Eduardo Torres (que en paz descanse), quien entre las varias actividades musicales ejercidas en Sevilla no fue la menos notable la llevada a cabo en estas mismas columnas como crítico de gran competencia y autoridad.

Sevilla tiene contraida con él una gran deuda de gratitud por la labor realizada en pro de la cultura musical sevillana y que debe saldar del modo más digno y noble.

Tengamos para su alma una fervorosa plegaria y para su memoria una respetuosa y entusiasta admiración. Háyale Dios recogido en su beatificada mansión..."

Norberto Almandoz continuó firmando sus críticas de conciertos con la ruborosa A., pero desde el 16 de marzo de 1937 firmaba N. A. y a los pocos días publicaba su primer estudio "Tomás Luis de Victoria y su Oficio de Semana Santa" en el que estampaba su nombre completo. En sus colaboraciones siguientes continuó manteniendo su firma N. A. en las críticas de conciertos y su nombre completo en los estudios. Pero a partir de enero de 1938 firmó indistintamente con su nombre completo.

Cuando en 1940 inició las críticas a las representaciones de ópera, volvió a la firma discreta, ahora con una X, que fue cambiando por T. O., M. C., Orfeo, Bemol, mientras en los otros géneros de música mantenía su nombre completo.

En la panorámica total de sus críticas queremos recalcar dos aspectos de gran valor: 1° el gran banco de datos acumulados sobre intérpretes que han desfilado por Sevilla y los pequeños estudios, que acompañan a cada crítica; 2º el estilo de crítica adoptado por Norberto Almandoz, que puede servir de modelo para cualquier profesional del género.

Con relación a este aspecto, al fallecer Norberto Almandoz el 7 de diciembre de 1970, el crítico

kritikak -bere hitzak dira hauek- ez du inoiz ez leherketa ez bortxaketa izan behar, balorapena eta zuhurtzia baizik; kritikoari gehiago epaitu behar zaio isiltzen duenaz esaten duenaz baino". Eta bera, pentsamendu leial eta zintzo hauekin beti kontsekuentea izan zena, sarritan bere ezagupen sakonetan eta azterlan jakintsuetan ezkutatzen zen, axolagabeko artista anitzen handikeria lotsagarria ez mintzearren, ezta ikutu ere".

Beste egunkari sebilatar bateko musika kritikoak, Vicente Genovés, "El Bajo Continuo"ren izenordearekin sinatzen zuenak, ondoko hau utzi zuen idatzita:

"...Kontzertu asko eta asko entzun nituen Norberto j.arekin batera, zeinari leku bilduetan -sotanaz jantzita eta mantuan bilduta- egokitzea atsegin zitzaion: Lope de Vega Teatroaren proszenioko aurrepalkoan, Instituto Murilloren eszenario berdinean, interpretari eta bere artean dekoratuen kortinak bakarrik tartean zituela, edota egitaraua Circulo de Labradores delakoan ospatzen zenean, aretoaren atzekaldean eseriko zen inor gutxik ikusteko moduan. Kontzertuak irauten zuen bitartean ez zuen inoiz apunterik hartzen, baina hau atsedenera heldu bezain laster, edozein gelatan bilatzen zuen lekua, bere kronika zirrimarratzeko, estiloz oparoa eta interpretatutako lanei buruz aukeran aukerako datuz betea, bihozbera zen beti artistekin, eta beti izango zituen hauentzat laudoriozko goraipamenak, zentsurak ekiditen zituen bitartean. Eta karitatezko eta apaiz jarrera hau izan arren, gizon egizale eta informatzaile izateko trebetasuna ere bazuen: Norberto j.aren kronikak irakurriz gero, "lerro artean" aurkitzen zen zehatz-mehatz kontzertua zer nolakoa izan zen eta nolako estetika balorazioa merezi zuen... Etxetik kanpo gaupasa gutxiren zalea zenez, beti eskatzen zien kontzertu antolatzaileei orduan punttu punttuan hasiera emateko eta ez gehiegi luzatzeko. Askotan eskatzen zien interpretariei, txaloak hala eskatuz gero, "propina" bezala zer obra jotzea pentsatzen zuten aldez aurretik esateko; beste batzuetan aldiz, adiskideren batengana jotzen zuen jotarauari "apartekoren bat" erantsi ote zitzaion telefonoz jakinarazteko eskatuz. Eta aipaturiko jotarau horretan obraren bat aurreneko aldiz agertzen bazen -egile atzerritar garaikideenak gehienetan- partitura eskatzen zion kontzertistari, eta berak bai azkarrasko aztertu ere, gero aparteko zehaztasunarekin neurtzeko baliagarri zituen irizpide

musical de El Correo de Andalucia, Julio Garcia Casas, escribía el 10 de diciembre:

"...Muchas veces hablé con don Norberto sobre temas Musicales y humanos. Y en todas, una conclusión evidente: su pasmosa erudición casi enciclopédica. No había dato que el ignorara, ni música para el inédita; músico en el sentido más noble y auténtico de la palabra, sin ropajes, falsedades, ni vanidades inoperantes, con un envidiable conocimiento de la estética y de la historia de la música y una capacidad de valoración en absoluto infrecuente. Una conversación con don Norberto era siempre una sublime lección de experiencia y erudición meridiana; siempre atento a las novedades musicales de su momento, no hubo jamás página alguna que no valorara con profundidad de maestro y finura de pensamiento, ni había compositor contemporáneo que no conociera, ni detalles que ignorara.

De él aprendimos el oficio penoso de la valoración crítica, que surgía de su pluma (¡cuántas y felices reseñas en el diario ABC!) con naturalidad absoluta; de él aprendimos a hablar con términos musicales, y a callar también a veces con humano y respetuoso silencio. 'Porque la crítica -y son palabras suyas- no debe ser nunca explosión ni violencia, sino valoración y cordura; al crítico debe juzgarse más por lo que calla que por lo que dice'. Y él, que siempre fue consecuente con esta línea honesta y noble de pensamiento, refugióse muchas veces en sus profundos conocimientos y en sus eruditas reflexiones, para no herir ni rozar siquiera la vanidosa petulancia de muchos artistas desaprensivos".

El crítico musical de otro diario sevillano, Vicente Genovés, que firmaba con el seudónimo "El Bajo Continuo", dejó también escrito:

"...Escuché muchísimos conciertos junto a don Norberto, a quien complacía acomodarse -vestido con sotana y envuelto en su manteo- en sitios recogidos: en el antepalco de un proscenio del Teatro Lope de Vega, en el mismo escenario del Instituto Murillo, separado de los intérpretes tan sólo por las cortinas del decorado, o, cuando la sesión se desenvolvía en el Círculo de Labradores, sentado en el fondo del salón para no hacerse demasiado visible. Nunca tomaba apuntes durante el concierto, pero cuando éste promediaba, buscaba cobijo en cual-

elementuak lortuz eta hori egiteko ez zuen ez, obra zuzenean entzun beharrik izaten.

Horrela bada, Norberto j.a kontzertuak amaitu baino lehen erretiratzen zen eta modu diskretu batean egin ere, inor momentu horretan antzemango ez zuen moduan ezta hurrengo egunean ere, bere kronika zuzen zuzen ABCko orrialdeetan agertzen zenean...".

Esan daiteke hemen aurkezten ditugun zertzeladak, gureak ez diren lumaz egindakoak direnez gero, ongi baino hobeto isladatzen dutela Norberto Almandozen fintasun eta gizatasuna hain lanbide delikatuan, hots, musika kritikaria izatea den bezala.

quier habitación, para pergeñar su crónica, fluida de estilo, henchida de oportunos datos sobre las obras interpretadas, siempre benévola con los artistas, a los cuales tributaba ponderados elogios y omitía censuras. Y, a pesar de esta caritativa y sacerdotal postura, tenía la habilidad de ser veraz e informativo: "entre líneas", leyendo las crónicas de don Norberto, se descubría exactamente lo que había sido el concierto y la valoración estética que merecía... Poco amigo de trasnochar fuera de casa, siempre instaba a los organizadores de conciertos la puntualidad en su comienzo y que no se prolongasen demasiado. Muchísimas veces solicitaba de los intérpretes le anticipasen qué obra pensaban ofrecer como "propina" si los aplausos la reclamaban; otras veces solicitaba de algún amigo le comunicásemos por teléfono si se habían añadido "extras" al programa. Y cuando en éste figuraba alguna obra en primera audición -generalmente de autores extranjeros contemporáneos-, pedía al concertista la partitura, que él examinaba rápidamente, obteniendo elementos de juicio que le permitían calibrarla con absoluta precisión, sin necesidad de escucharla directamente.

Así, pues, don Norberto Almandoz solía retirarse de los conciertos antes de que terminasen y de un modo discreto, sin que nadie lo advirtiese en ese momento ni tampoco al día siguiente, cuando con toda puntualidad aparecia su crónica en las páginas de ABC..."

Puede decirse que las pinceladas que aquí presentamos, debidas a plumas ajenas a la nuestra, retratan a la perfección la exquisitez y humanismo de Norberto Almandoz en oficio tan delicado, como el de la crítica musical.

# NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL, APAIZ ETA MUSIKAGILEA

**Musika biblioteka-artxiboa eta Norberto Almandozi idatzitako gutunak.**
**Bere nortasun izpiritual eta gizatiarra.**

# NORBERTO ALMANDOZ MENDIZABAL, SACERDOTE Y COMPOSITOR

**El archivo-biblioteca musical y las cartas a Norberto Almandoz.**
**Su personalidad humana y espiritual.**

Geografía e Historia

## Musika biblioteka-artxiboa eta Norberto Almandozi idatzitako gutunak.

Norberto Almandozen kultura musikala, bera ezagutu zutenek edo eta bere lanak irakurritakoek azaldu dutenez, ez zen hutsaren truk isuritako zientzia, bere nortasun sendo eta irakurtzeko gose ase-ezinari esker lortutakoa baizik, zeinak liburu eta partitura azterketen gau ihardunaldi luzeak exigitzen zizkion.

Eredu zen ikasle honek, irakasle bikainekin ikasketak burututakoan, aurrezturik zituen sos gehienak liburuak eta partiturak erosten gastatzen zituen bere bizitzan.

Denboraren poderioz, era askotako atalez hornitutako biblioteka garrantzitsu bat izatea lortu zuen, hau da, Musikaren Hiztegi, Entziklopedia eta Historia; Musikagile eta interpreteen biografiak, bakoitzaren musika-literatur lanak; Didaktika musikalaren Estudioak ikasketa maila guztietan eta gai eta era askotako musika; Estatuko eta atzerriko musika aldizkariak; Estatuko eta atzerriko Folkloreari buruzko Bilduma eta Tratatuak.

Halabaina ez da gutxiago musika idatziaren ondarea. Ondare honetan patrikako partitura mordo bat aurkitzen dugu musika genero guztietakoa; hala nola, kontzerturako musika liturgiko edo erlijiosoaren atrileko partiturak, instrumental, sinfoniko eta ganbara musika, korala, lied, piano etabar. Partitura guzti hauen arteko asko eta askok musikagileek Norberto Almandozi egindako eskaintza daukate.

## El archivo-biblioteca musical y las cartas a Norberto Almandoz.

La cultura musical de Norberto Almandoz, pregonada por cuantos le conocieron o han leído sus trabajos, no era una ciencia infusa, sino adquirida gracias al tesón de su recia personalidad y al hambre insaciable de lectura, que le exigía largas sesiones nocturnas de análisis de libros y partituras.

Tras su ejemplar etapa estudiantil con excelentes profesores, durante su vida invirtió gran parte de sus ahorros en la adquisición de libros y partituras.

Con el transcurso de los años llegó a poseer una biblioteca importante, dotada de una variada sección de Diccionarios, Enciclopedias e Historias de la Música; Biografías de compositores e intérpretes, con sus propias obras literario-musicales; Estudios de Didáctica musical en toda clase de disciplinas y una gran variedad de temas musicales; Revistas musicales nacionales y extranjeras; Colecciones y Tratados de Folklore nacional y extranjero.

No menos importante es el fondo de música escrita. En este fondo encontramos un gran número de partituras de bolsillo de todos los géneros musicales, así como partituras de atril de música litúrgica o religiosa de concierto, música instrumental sinfónica y de cámara, coral, lied, piano, etc. Entre estas partituras un gran número llevan dedicatoria del compositor a Norberto Almandoz.



Sevillan Norberto Almandozek zuen langelaren argazkia, bertan zeukan bere artxibo-musikal itzela, konpositore bikainek berari eskainitako argazkiez apainduta.

Foto parcial del despacho de Norberto Almandoz en Sevilla, donde se hallaba su gran archivo musical, decorado con fotografías de grandes compositores a él dedicadas.

Honetaz gain, kontzertuetako egitarau anitz, musika argitaletxen katalogoak etabar daude.

Ondasun hauekin batera eta aparteko sail batean, Norberto Almandozek idatzitako obrak aurkitzen dira, argitaratuak batzuk eta eskuizkribuak besteak. Eta noski, dokumentazio pertsonal, argazki, eskutitz etabarren, pilaketa handi bat.

Material baliotsu hauek aztertzen dituen edonork egiazta lezake, guztiak ere oharrez beteak daudela eta etengabeko erabilpenaren aztarna erakusten dutela.

Norberto Almandoz Sevillako bere etxean poliki-poliki osatzen joan zen Biblioteka-Artxibo hau, testamentuan bere hiloba Isabel Almandozi gomendatua izan zen, bere heriotz ostean, Astigarragako jaiotetxera itzulia izateko desio garbiarekin.

Borondatea beterik, 1977an ERESBILeko talde teknikoak ondare hau sailkatu eta katalogatu zuen, zeina oinordekoek 1979an ERESBILen gordailuan utzi

Hay además muchos programas de conciertos, catálogos de editoriales musicales, etc.

Junto a estos fondos y en sección aparte, se hallan las obras escritas por Norberto Almandoz, editadas o manuscritas. Y junto a ellas un gran acopio de documentación personal, fotografías, cartas, etc...

Cualquiera que analice estos valiosos materiales, puede comprobar que todos ellos están cargados de anotaciones y que muestran la huella de un uso permanente.

Este Archivo-Biblioteca que Norberto Almandoz fue creando pacientemente en su vivienda de Sevilla, fue encomendado testamentariamente por él a su sobrina Isabel Almandoz, con el expreso deseo de que fuera trasladado a su casa nativa de Astigarraga, tras su fallecimiento.

Cumplida su voluntad, en 1977 el equipo técnico de ERESBIL ordenó y catalogó estos fondos, que en 1979 fueron cedidos en depósito por los herederos

zuen, hots, Errenterian dagoen Euskal Konpositoreen Artxibu honetan.

Azterlan biografiko honen erredakziorako, ondare honetan dauden iturri ugari eta fidagarriak erabili dira.

Uste dugu Norberto Almandozi idatzitako gutunak, kronologikoki sailkatuak, eta igorlearen izenaren aurkibidearekin jasotzen direnak, baloraezinezko datu biltegi bat suposatzen dutela. 300 sinaduratik gora dira katalogatutako gutunak eta jakin badakigu, altxor aberats hau are gehiago hornituko zukeen beste multzo eder bat galdu egin zela.

Gutunen artean zenbait sinadura nabarmen aipatzekotan, besteak beste, Sekundino Esnaola, Jesus Aranbarri, Jose Mari Beobide, A. Donostia, Franzisko Escudero, Tomas Garbizu, Jesus Guridi, Luis Iruarrizaga, Eduardo Mokoroa, Nemesio Otaño, Luis Urteaga, Bitor Zubizarreta, etab. etab. Konpositore espaniarren artean: Manuel de Falla, Joaquín Turina, Oscar Espl, Manuel Palau, Ernesto y Cristobal Halffter, Eduardo Torres, Antonio José, Manuel Castillo, etab. etab. Musikarien artean: Samuel Rubio, Jose Subira, Jorge Riezu, Lothar Siemens, Santiago Kastner, Robert Stevenson, etab... Zuzendari eta beste: Gelasio Aranburu, Isidoro Fagoaga, Leopoldo Querol, Eugène Cools, Federico Sope:a, ... Avila, Cádiz, Granada, Huelva, Jaén, Málaga, Sevilla, etabarreko elizbarrutiak.

Eskutitz batzuk argitaratzen ditugu ilustrazio modura, non zenbait datu interesgarri aurkitzeko egokiera izan daitekeen, halabaina, honekin ez da esan nahi houek besteak baino edukin handiagoa dutenik.

Bilbo, 1928ko martxoaren 11

*Norberto Almandoz j.a*

Nere adiskide agurgarri maitea:
Zenbait egun joan zaizkit zureari erantzunik eman gabe, zeharo lanpetua ibili naizelako.
*"Así cantan los chicos"*en materiala Madrileko "Masa Coral"eko Benedito Maisuak du. Berak zuzendu zuen obra hori, orain gutxi Madrilen eman zen kontzertu batean Arbosen orkestrarekin. Esko iezaizkiozu beraz, Beneditori eta honek zuzen-zuzenean bidaliko dizkizu orkestraren parteak. Partiturari dagokionez, berak ez

a este Archivo de Compositores Vascos, ERESBIL, domiciliado en Rentería (Gipuzkoa).

Para la redacción de este estudio biográfico se han empleado las abundantes fuentes de primera mano existentes en estos fondos.

Consideramos que las cartas a Norberto Almandoz, que se conservan en orden cronológico con un índice onomástico de los remitentes, suponen un inestimable banco de datos. Pasan de 400 las firmas de cartas catalogadas y hay constancia de la pérdida lamentable de un buen número de otras, que hubieran aumentado sensiblemente este riquísimo tesoro.
Algunas de las firmas destacadas de las cartas pueden ser entre los compositores vascos: Secundino Esnaola, Jesús Arambarri, José Mª Beobide, P. Donostia, Francisco Escudero, Tomás Garbizu, Jesús Guridi, Luis Iruarrizaga, Eduardo Mocoroa, Nemesio Otaño, Luis Urteaga, Victor Zubizarreta, etc. etc. Entre los compositores españoles: Manuel de Falla, Joaquín Turina, Oscar Esplá, Manuel Palau, Ernesto y Cristobal Halffter, Eduardo Torres, Antonio José, Manuel Castillo, etc. etc. Entre musicólogos: Samuel Rubio, José Subirá, Jorge de Riezu, Lothar Siemens, Santiago Kastner, Robert Stevenson, etc. etc. Directores y otros: Gelasio Aramburu, Isidoro de Fagoaga, Leopoldo Querol, Eugène Cools, Federico Sopeña, etc. Curias diocesanas de Avila, Cádiz, Granada, Huelva, Jaén, Málaga, Sevilla, etc.

A modo de ilustración, reproducimos algunas cartas, en las que puede comprobarse la oportunidad de encontrar datos de interés, lo que no quiere decir que éstas sean de mayor contenido que las demás.

Bilbao 11 marzo 1928

*Sr. D. Norberto Almandoz*

Mi respetable y querido amigo:
Se me han pasado unos cuantos días sin contestar a su atenta, porque he estado enormemente ocupado.
El material de "Así cantan los chicos" lo tiene el Mtro. Benedito, director de la Masa Coral de Madrid. El dirigió la obra con la orquesta de Arbós en un concierto, que tuvo lugar hace muy poco tiempo en Madrid. Puede dirigirse, pues, a Benedito y él remitirá directamente las partes

badizu bidaltzen, bere jabegokoa delako, ni saiatuko naiz nerea berreskuratzen, eta Zeuri bidaltzen, une honetan nik neuk ere ez daukadalako.
Galiziar lana ez daukat aurreratua, konposaketarako denbora gutxi gelditzen zaidalako Kontserbatorio, Santio eta Abesbatzarekin bete ondoren. Beraz, haserre nago honekin eta neri atsegin eta nik konposatu nahi dudanarekin zer ikusirik ez duen guztia lehenbaitlehen pikutara bidaltzeko gogo biziarekin nago.
Eta B.ek zer egiten du? Ahotsetarako kanta herrikoi berririk argitaratu al du? Eta musika aldetik hurrengo Erakusketan? Zergatik ez Abesbatza? Izanik, izango den bezala, orkestra bat, presta genitzake kontzertu bikain batzuk. Esan iezadazu honetaz zerbait jakinez gero eta guzti hau nola mugi daitekeen.

Gaurkoz besterik gabe eta agur maitakor batekin zure esanetara gelditzen da zure bihotzeko eta adiskide on,

*Jesús Guridi*
Ibañez de Bilbao, 2, 4.a

de orquesta. En cuanto a la partitura, si él no la mandase, porque es de su propiedad, yo trataré de recuperar la mía, que en este momento tampoco la tengo y la enviaría a Ud.
La obra gallega no la llevo adelantada, porque me queda poco tiempo para componer, después de atender a las ocupaciones del Conservatorio, Santiago y la Coral. Estoy, pues, contrariado con esto y deseoso de mandar cuanto antes a *paseo* todas las tareas que no se relacionan con lo que a mí me gusta y es mi deseo: componer.
Y V. ¿que hace? ¿Ha publicado nuevos cantos populares para voces? ¿Y de la parte musical en la próxima Exposición? ¿No sería posible que fuese la Coral? Disponiendo, como se dispondrá, de una orquesta, podíamos preparar unos magníficos conciertos. Dígame si algo sabe de esto y cómo se puede mover el asunto.

Sin más por hoy y con un cariñoso saludo queda a su disposición su afmo. y buen amigo,

*Jesús Guridi*
Ibañez de Bilbao, 2, 4°

Gutun honetan, beste daturen artean Sevillako 1929ko Ferian Norberto Almandozen bitartekaritza antzematen dugu, Bilboko Sociedad Coral eta Orfeoi Donostiarraren artean osatu eta Paulo Sorozabalek zuzendutako Euskal Orfeoiaren emanaldiarekin. Erakus dezagun beste bat:

Lekarotz 1933-I-28

Almandoz adiskidea: Gaur goizean iritsi zait zurea: gaizki diot, atzo; zeren emakumezkoen Madame Evrarad-en Orkestrak Donostian eman zuen Kontzertutik itzultzerakoan zai neukan postaren artean zegoen.
Esker mila ni zerbitzatzeko duzun arduragatik.
Hala eta guztiz ere gustatuko litzaidake Sevillara ihesaldi bat egitea, Codicea ikusi eta Castrillok bere liburuan jarri ez dituen zenbait xehetasun antzematea.
Ez daukat eskatzen didazun Ravelen partitura. Madrilen eman nuen hitzaldia, zuk ezagutzen duzuna da eta Santion eman nuena: hori bai, Pasaiako mutilak falta zitzaizkidala. Mlle.

Entre otros datos, comprobamos en esta carta la intermediación de Norberto Almandoz con la actuación en la Feria de Sevilla de 1929 del Orfeón Vasco, integrado por la Sociedad Coral de Bilbao y el Orfeón Donostiarra, dirigido por Pablo Sorozabal. Pongamos otro ejemplo:

Lecároz 28-I-1933

Querido Almandoz: Esta manaña me ha llegado la tuya: digo mal, ayer; pues al volver de Donostia, después del Concierto que la Orquesta femenina de Madame Evrard dio allí, la encontré en el correo que me aguardaba.
Gracias por tu diligencia en servirme. A pesar de eso me gustaría hacer una escapada a Sevilla, a ver el Códice y notar sobre todo algunos detalles que Castrillo no ha puesto en su libro.
No tengo la partitura de Ravel que me pides. La conferencia que di en Madrid, es la que tú conoces y oíste en Santiago: ahora que me faltaban los chicos de Pasajes. Mlle. Dumail cantó

Dumail-ek nahiko ondo abestu zuen, egin genituen entsaio gutxiak kontutan hartuz.
Esan bezala, Donostian orkestra eta Pasaiako mutilekin egon nintzen nire Santa Zeziliaren entsaioan. Ongi irten zen eta kontzertura hurbildu zen "aditu" multzo txikiari gustatu zitzaion. Ez zen faltatu S. Bizente elizako kantaririk ere eta, entzun dudanez, ez zuen ezagutu bibolinak jo zuen "In Paradisum", argi eta garbi, badakizu... (!!!)
Ez dakit Parisera joango naizen ala ez. Oraino ez dago ezer "in aere". Beharbada Jaungoikoak nahi badu... Eta, dakizun legez, ni ez naiz nor "Jaungoikoaren nahiari" eragozpenak jartzeko. Ni hemen edo han, zu "Villa Lumière"n zauden bitartean zerbaitetan lagun al baneza, esan iezadazu.
Oso belatsa da Aranbarri zentzu guztietan esanda: pertsona jatorra da. Parisen rue de la Soruceko Beneditarretan bizitzen zen, hortik kontuk atera...! Oso musiko ona da. Gaur gaurkoa eta interesgarria.
Irakurri al zenuen "Revue Musicale"ren artikulua? Zer esango ote dute Pagola eta Guridik jakiten dutenean? "El D2a"n argitaratu nahi dute: baina, komeni al da esaldi gogor hura hedatzea?... Et pourtant, il faudrai dire certaines vérités...
Beno. Besterik ez. Ikaragarrizko hotza egin du hemen. Hor holako hotza egin izan balu ez zen "seviyano" bat bera ere zutik geldítu.
Ah! Ahaztu zait lehenago esatea. Tellería, klabezinistetakoa, agurtu nuela Madrilen. Baina ez nuen betarik izan berarekin hitz bi lasai egiteko.

Agur. Adeitasun osoz

*A. José Antonio (A. Donostia)*

Interes musikologiko datuak dakartzanez gero, eskutitz exotikoagoaren berri emango dugu oraingoan:

Sevilla, 1938ko abenduaren 2a

*ABCko Erredaktore Buru J.a - Sevilla*

Jaun agurgarria:
Gaurko egunez irakurri dut ABCn, Norberto Almandoz j.aren artikulua, "El Padre Otaño y el Himno Nacional Espa:ol" izenburuarekin. Artikulu honetan, Norberto Almandoz j.ak ez daki nori atxeki "Himno Nacional Espa:ol"aren konposaketa.

bastante bien, dado lo poco o nada que ensayamos.
Como te digo, estuve en S. S. para el ensayo de mi Santa Cecilia con la orquesta y los chicos de Pasajes. Salió bien y gustó al reducido número de "inteligentes" que asistió al concierto. No faltó elemento eclesiástico cantor de S. Vicente que, según me han dicho, no reconoció el "In Paradisum", tocado por el violín, limpio de polvo y paja, como sabes...(!!!)
No sé si iré a París. Todavía no hay nada "in aere". A lo mejor Dios proveerá... Y, como te imaginarás, no pondré yo obstáculos a la "voluntad de Dios". Si aquí o allí puedo hacer algo por tu estancia en Villa Lumière, avísame.
Arambarri es muy simpático en todos los sentidos: es persona formal. Figúrate que en París vivía en los Benedictinos de la rue de la Source.... Es muy buen músico. Muy moderno e interesante.
¿Leíste el artículo de la "Revue Musicale"? Si se enteran Pagola y Guridi ¿que dirán? Quieren publicarlo en "El Día": pero ¿es conveniente decir, divulgar aquel párrafo tan terrible?... Et pourtant, il faudrai dire certaines vérités...
Bueno. Nada más. Ha hecho un frío horrible. No hubiera quedado un "seviyano", si ahí hubierais tenido este frío.
¡Ah! Se me olvidaba. Saludé un momento a Tellería, el de los clavecinistas, en Madrid. Pero no pude hablar con él un poco a gusto.

Agur. Manda a tu affmo.

*P. Jose Antonio (P. Donostia)*

Transcribimos ahora una carta más exótica, por los datos de interés musicológico que aporta:

Sevilla, 2 de Diciembre de 1938

*Sr. Redactor Jefe de ABC - Sevilla*

Muy distinguido Sr. mío:
Acabo de leer en el ABC de esta fecha, el artículo de D. Norberto Almandoz, titulado "El Padre Otaño y el Himno Nacional Español". En este artículo, D. Norberto Almandoz no sabe a quien atribuir la composición del Himno Nacional Español.

Orain dela hamabost bat urte, hain zuzen ere, Agramonte j.ak "Federico II, Rey de Prusia" izenburua zuen liburu edo antzeko zerbait idatzi zuen, zein Mundu Gerra garaian edo lehenago, Militar Laguntzailea edo Espainiako Enbaxadako Idazkaria Berlinen izan zen. Liburu honek, Agramonte j.aren komentaketa pertsonal batzuk ez ezik, garai hartan Berlinen zegoen Carlos III.aren Enbaxadoreak bere Erregeari, Madrilera bidali zizkion txostenak jasotzen zituen, Prusiako Errege handiaren pertsonari zegozkionak batipat. Obra honetan, ezagutzera eman zen baita, bera, Berlinen Espainiako Enbaxadore zenez gero, Carlos III.ari zuzendu zion gutunaren testua (1782ko urtean, oker ez banabil), xirularako bi konposizio -Zuk jakingo duzun bezala, Federiko Haundia xirulari sutsua zen eta, martxa militarrak konposatu zituen gehienbat- horietariko bat gaurregun "Himno Nacional Espa:ol" dena, (lehenago"Marcha Real" zena) eta bestea berriz, nik neuk sarritan entzun nituen alabardariak Ostegun Santuko prozesioan, Errege Jauregiko kapera publikoan hori jotzen. Azkeneko martxa hau, antzinako "Guardia Prusiana"ren ez dakit zer erregimientoko himnoa ere bazen, Mundu Gerraurretik. Bestelakoan, aipatutako martxa txit ezaguna da Alemanian.

Oso interesgarria dela deritzot "Himno Nacional Español"aren jatorria ezagutzea, eta ospatzekoa izango litzateke Caudilloak Berlinen duen Enbaxadorearekin Zuek harremanetan jartzea, Agramonte j.aren liburu ale bat eskuratu asmoz (gazteleraz eta alemanieraz argitaratua), eta beharbada, al izanez gero Espainiak Berlinen duen Enbaxadatik honi buruzko dokumentazioa eskuratzea.

Bestalde, gogoan dut Zuek zeurok, Caudilloak ofizialki antzineko "Marcha Granadera" Himno Nacional bezala deklaratu eta egun gutxitara, artikulu bat argitaratu zenutela, non Espainiak Berlinen duen Enbaxadan aurkitu ziren dokumentu batzuk aipatzen zenituzten.

Eragindako gogaitasunarengatik barkatzeko eskatzen diot, baina arazo hau argitu beharrean aurkitzen nintzenez, adeitasunez agurtzen du "Gora Espainia! eta Heil Hitler! batekin

Zure zerbitzari leiala

*Oskar Hellmuth*

Precisamente hace unos quince años, escribió el Sr. Agramonte, quien antes o durante la Guerra Mundial fue Agregado Militar o Secretario de la Embajada de España en Berlín, un libro titulado "Federico II, Rey de Prusia" o algo parecido. Este libro, además de unos comentarios personales del señor Agramonte, contenía extractos de los informes que el entonces Embajador del Rey Carlos III, en Berlín, envió a su Monarca, a Madrid, tratando especialmente de la persona del gran Rey de Prusia En esta obra, igualmente se dio a conocer el texto de la carta que el a la sazón Embajador de España en Berlín dirigió a Don Carlos III (si me es fiel la memoria, en el año 1782), conteniendo dos composiciones para flauta -como Vd. sabrá, Federico el Grande era un apasionado flautista y, en su mayoría, compuso marchas militares- de las cuales una era el que hoy es Himno Nacional Español (antes Marcha Real) y la otra una marcha que yo mismo oí tocar a menudo a los alabarderos durante las procesiones de Jueves Santo, en la capilla pública del Palacio Real. Esta última marcha, figuraba tambien como himno de no recuerdo qué regimiento de la antigua Guardia Prusiana, antes de la Guerra Mundial. Por otra parte, la citada marcha es conocidísima en Alemania.

Juzgo muy interesante conocer el origen del Himno Nacional Español, y sería de celebrar que Vdes. se pusieran en comunicación con el Embajador del Caudillo en Berlín, con el fin de obtener un ejemplar del libro del señor Agramonte (editado en español y alemán), y tal vez, partiendo de esta base, fuera posible extraer de los archivos de la Embajada de España en Berlín, el documento correspondiente.

Por otro parte, recuerdo que Vdes. mismos, unos días después de declarar el Caudillo oficialmente la antigua Marcha Granadera como Himno Nacional, publicaron un artículo en que se referían a los documentos hallados en la Embajada de España en Berlín.

Rogándole perdone la molestia ocasionada, pero habiéndome creído en el deber de aclarar esta cuestión, le saluda afectuosamente con un

Arriba España! y Heil Hitler!

Su afmo. y S. S. q.e.s.m.,

*Oskar Hellmuth*